Baina gurera berriro ere etorrita, esan beharra dago Don Bosco multzoaren sortze prozesuaz bi dokumentu ditugula: argazki bat eta Manuel Lekuonaren lekukotasuna:



**USULBILGO INGEMAR LANTOKIAN, JUAN MANUEL BEOBIDE HAREN LEHENGUSUAK (SALESTARRA BERA ERE) LAGUNDURIK, DON BOSCO ESKULTURA-MULTZOA LANTZEN. 1,95 x 1,10 x 0,70 m.**

“Neroni ikusirikan nago gure artista negu gogorrean, kau aldetara zabalik zegoen aldamiobatean, arrizko bloke ikaragarri batean Dom Bosko-ren imagiña ateratzen, burnizko mallua eskubian, burnizko zintzela ezkerrean, arri gogorrari jo-ta-jo, lenengo golpetik azkenekoraño, edozein argiñek egin zezakean desbaste-lana berak bere eskuz egiten, otzaren otzez sudurra gorri, eta bujanda txiki bat lepoan biratua... Karaitz gogor artan mallu-golpe bakoitzak, Beobide-ren esku-muturretako nerbiotan zenbaterako ostikada egiten ote-zuan, Jaungoikoak bestek iñork ez daki... Jaungoikoak eta zerutikan begira zeukan San Juan Bosco,k berak... berak ordainduko bait-dizu, Beobide, egunen batean, Usurbil'go Ingemar'en lantegi idekian egin zenion eskulturazko grupo bikain ura...”<sup>13</sup>.

12. Ana María Gutiérrez Márquez: *op. cit.* 57, 58 orr.

13. Manuel Lekuona: *op. cit.* Esan beharra dago Ingemar, SA enpresa 1952an fundatu zutela Usurbilen. Hasieratik bere harrobietan ateratako marmol beltza ekoizten zuen, baina 1959tik aurrera granittoa ekoizteari ekin zion eta azken zeregin horretan nabarmendu da bereziki enpresa hori.

Beobidek urtebete inguru eman zuen multzo hori lantzen. Don Boscok bi mutiko babesten ditu, batak Lana ordezkatzan du eta besteak Ikaskuntza:

“Representa el monumento a San Juan Bosco con dos muchachos vestidos propiamente para sus oficios, y el santo con el hábito de la Orden por él fundada. Don Bosco apoya sus manos en los hombros de los chicos y éstos, unidos, caminan bajo su protección”<sup>14</sup>.

Eskultura horrek ez zuen zorte handirik izan, eta ibilbide gorabeheratsua egin zuen:

“En 1960 y para la Ciudad laboral Don Bosco, que se estaba contruyendo en Rentería, realizó un grupo escultórico concebido para ser colocado encima de una marquesina a la entrada del Colegio. La poca resistencia del soporte ha obligado a su actual colocación en los jardines del edificio disminuyendo el valor del grupo al faltarle la perspectiva y el marco adecuado”<sup>15</sup>.

Jatorrizko kokapenean Don Boscok harrera ematen zien eskolara sartzen ziren ikasle guztiei. Kokapen berrian zentzu sinboliko hori galdu da. Hori dela eta, Beobidek oso gaizki hartu zuen aipatu kokapen aldaketa.

## **KAPUTXINOEN KRISTOA**

Kaputxinoen komentua, Gipuzkoako aurrenekoa, 1612an fundatu zen, Matxingo lurmuturrean. Hainbat gorabehera jasan ondoren, eraikinaren suntsiketa barne, XIX. mendean kaputxinoen komunitatea desagertu zen. Kaputxinoak 1958an itzuli ziren Errenteriarara, eta 1963an Aita Jose Mariak<sup>16</sup>, Kaputxinoen nagusiak, lursail bat lortu zuen han komentu berria eraikitzeko. Lursail horren jabea Benigna Orbea hondarribitarra zen, eta dohainik eman zien Kaputxinoei. 1965eko martxoaren 21ean Felix Oiarbiderekin kontratua sinatu eta eliza eraikitzeari ekin zioten. Eliza 1966ko martxoaren 5ean inauguratu zen<sup>17</sup>.

Artean, Errentariako biztanleria hazten ari zen, eta 1965eko urte horretan hiru parroquia berri zeuden beren zerbitzuak aurki emateko prest: Alabergakoa, Iztietakoa eta gorago aipatu Fatimako Andra Mariarena.

14. Ana María Gutiérrez Márquez: *op. cit.* 93 orr.

15. Ana María Gutiérrez Márquez: *op. cit.* 62 orr.

16. Aita José María Oiartzungoa, Txilen ibilia zen misiolari. Hark egin zuen komentu berria Fatimako Andra Mariaren izenpeko. José Miranda: *Los Capuchinos*, Oarso, 72-73 orr.

17. José María Sevillano: *Datos evocadores. Despedida de los padres Capuchinos. Septiembre de 2006*. Oarso. Ayuntamiento de Errenteria, 2006. 19 orr.



**KAPUTXINOEN KRISTOA.**

Kaputxinoek Errenterian zabaldu berria zuten parrokiarako Kristo gurutziltzatuaren irudia enkargatu zioten Beobideri. Ikusi dugun bezala, Julio Beobide gizon fededuna zen oso, eta fede hori bere lan ugarietan islatzen da.

Lan horretarako Beobide aukeratu izana oso zentzuzkoa zela ematen zuen, esan beharra baitago Beobideren eskulturen artean nabarmenenak direla mundu osoan zehar banaturik dauden Kristoren irudiak; besteak beste, Zumaiaiko Santiago elizakoa, Añorgako parrokiakoa, Montevideokoa, Toledokoa eta Errenteriako Fatima Andre Mariaren Parrokiarako hasi zuen hura.

Horri buruz Manuel Lekuonak zera idatzi zuen:

“Jesus’en eriotza, bi lapurren erdian izan zen.

Beobide’ren bizitza, esan ditekete, Jesus’en bi Gurutze Santuren erdian arkitzen dala. Zuloaga’ren Gurutze Santua, eta –gaur arte beintzat– Errenteriako AA. Kaputxinuen Gurutze Santua...”<sup>18</sup>.

Eta Mario Angel Marrodanek, bere aldetik:

“La historia artística del tallista vasco de Cristos y Dolorosas fue la del autodidacta perseverante en pos de su madurez, entre afanes, dedicaciones, libros de arte y virtudes de gubias,

18. Manuel Lekuona

la del retocador que da forma a las piezas que anhela dominar hasta la perfección de la obra de arte”<sup>19</sup>.

Eta aurerrago:

“Los Cristos y Crucificados que creó llenaron ‘el sentido artístico de su alma. Pese a que el destinado al convento de PP. Capuchinos de Rentería quedara inconcluso, después de trabajar en él durante varios años, el rostro de ese Cristo parece exclamar –con la trágica expresión que le puso las manos de Beobide– los versos profundos y patéticos de Pierre Jean Jouve a su dios: ‘Dios mío, qué infinito asilo serás para el corazón sin visión, para la carne sin hogar, para la muerte corporal y sin idilio”<sup>20</sup>.

Ana M<sup>a</sup> Gutiérrezek ere ikutu zuen gai hori:

“Uno de los temas mejor tratados por Julio Beobide y en el que encuentra su máxima expresión como escultor, es el de los Cristos crucificados.

Con una formación basada en tradiciones imagineras de los tiempos de Berruguete, Anchieta, Gregorio Fernández, Montañés, Mena, Blay, Quintín de Torre, Asorey, etc., y poseído de un hondo sentido religioso, ha dado vida a sus tallas viviendo personalmente lo que significan y transmitiendo a la materia inerte su propia fe y moral.

Sus crucificados son verdaderas creaciones llenas de sentimiento, llenas de garra, llenas de inspiración.

Se mueve dentro de una dimensión comunicativa realizando verdaderas tallas que llegan a la sensibilidad de los hombres sencillos como medios de contacto entre Dios y el hombre. Son precisamente estas creaciones religiosas las que han dado al artista las mayores satisfacciones como escultor. Su máxima aspiración al realizarlas era siempre lograr una fervorosa devoción del pueblo hacia ellas, consiguiéndolo repetidas veces al calar tan hondo en la sensibilidad popular.

Los Cristos de Beobide son testimonios de una fuerza interior, contenida, producida precisamente por su propia fe auténtica y viva. En ellos capta los sufrimientos humanos, usando para ello hasta los mínimos detalles anatómicos. Modelando el cuerpo, Beobide logra casi una anatomía de gabinete de disección, marca las vértebras, los huesos de la cabeza, torso, manos, piernas, etc. se adivina en la tensión de los músculos el esfuerzo del cuerpo pendiente de la cruz.

Los crucificados que talla este escultor están todavía con vida en la cruz, en su mayoría con la cabeza levantada, elevando los ojos al cielo y susurrando por su boca entreabierta alguna palabra.

Aparte del sufrimiento físico, beobide profundiza en el dolor espiritual, en la sumisión de Cristo a la voluntad de su padre. Son imágenes heroicas y desesperadas en su soledad con una violencia en cierto modo impotente”<sup>21</sup>.

Eta, bukatzeko, Nemesio Etxanizen bertsoetan.

“Jaunak emana dezu, Julio,  
irudigille sormena;  
ta zuk ordaiñez Jaunaren alde  
jarri zendun eder zena.  
Dena da sakon zure bidean,  
dena bikaiñ, dena bena;  
*Gurutzegintzan, ala ere, zuk  
jaso dezu zure izena.*  
Zure biotza ixuri dezu  
Gurutzearen lanketan;  
Jaunari hartu zenion bere  
arnasa azken-oiñazetan;  
saietsak, odol, biotza agiri,  
iltzeak esku-oiñetan...  
*Ai, zer nolako saria dizun  
Jaunak prest zeru-goietan”.*

Kaputxinoek ondo zekiten Julio Beobide makal zebilela, baina hala eta guztiz ere 1966ko otsailaren 8an eskultoreak lana egiteko konpromisoa hartu zuen. Ez zen kontraturik sinatu: hitzezko hitzarmena besterik ez zen egon<sup>22</sup>.

“El escultor zumayano don Julio Beobide fue el encargado para tarea semejante. Era un hombre espiritual, humilde y sin grandes aspiraciones lucrativas. Nadie ponía en duda su valía artística. Sus Cristos son reconocidos por su especial expresividad.

Del artista se sabía que su salud se resquebrajaba. Con todo, el 8 de febrero de 1966, el escultor se comprometió a realizar una talla de Cristo de 2,20 metros de longitud.

El artista comenzó a trabajar sobre madera rojiza fuerte de Guinea. Sus golpes sobre el macizo tronco eran lentos. Se le insistía. Había serios temores sobre su salud. El tronco iba adquiriendo lentamente nueva vida. El rostro, austero y piadoso a la vez, sobresalió desde la entraña de la madera. Pasaban los meses, demasiados. La talla avanzaba muy despacio. El artista no admitía ayuda alguna. La ilusión y el fervor del

19. Mario Ángel Marrodán: *La escultura vasca*. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca.

20. Mario Ángel Marrodán: *op. cit.*

21. Ana María Gutiérrez Márquez: *op. cit.* 28, 29 orr.

22. Tarsicio de Azcona: *Presencia de los Capuchinos en Rentería: (1612-1837) y (1958-1983)*. San Sebastián: Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, 1983. 243 orr.

anciano no adelantaban la obra, los achaques no le dejaban encerrarse en su taller. Cuatro años que se le había encomendado. La obra seguía pidiendo más vida. Se iban perdiendo las esperanzas. El día 12 de septiembre de 1969 murió y el Cristo quedó para siempre inacabado. Le faltaban los brazos y algunos pequeños detalles más.

¿Qué hacer? Hubo intentos de terminarlo, incluso copiando los brazos de otros Cristos suyos. La prensa comenzó a airear la conveniencia de dejar el “Cristo inacabado”.

La verdad es que había un contrato apalabrado con el maestro. Hombre honrado, no gustaba de contratos escritos. Se le pidió. No aceptó. Una tarde se personaron en casa de los Beovides los Padres Domingo Labaca y Sabin Eguibar. Hablaron con los familiares. Escucharon sus condiciones. No aceptaron y se rompió allí mismo el contrato apalabrado. Se les exigió la cantidad apalabrada, que constaba y a pensar en otro<sup>23</sup>.

Kaputxinoetako Kristoa egiteagatik 100.000 pezeta inguru kobratu zuen, César de la Lamak esandakoa zuzen baldin bada.

“Cobra por un trabajo de esta envergadura cien mil pesetas. Está en buena posición económica, no es el artista genial que muere pobre”<sup>24</sup>.

Lana burutzeko aukeratu zuen kaobazko egurrezko pieza apart horren inguruan honako kondaira zabaldu da: Bakailao-ontzi bateko marinelek itsas zabalean aurkizu ei zuten pieza hori eta Lezoko zerrategi batek erreserbatua zuen horrelako behar baterako<sup>25</sup>.

Egia izan edo ez istorio ederra da, eta itsasoan aurkitutako irudien tradizio oparoari – Lezoko Santo Kristorena, esate baterako– lotzen zaio.

Hala ere, beste artikulu batean jasota geratu zenaren arabera, Brasiletik etorri zen zortziehun kiloko kaobako bloke itzel hori. Artistak zizelkatu eta gero eskulturak ehun kiloko pisua izango zuen gutxi gorabehera<sup>26</sup>.

Beobidek tailerra Zumaian zuen “Kresala” izeneko etxe batean, itsadarradarren ondoan. Etxe horretan hasi zuen obra hori eta han geratu zen, bukatu gabe.

23. Tarsicio de Azcona: *op. cit.* 243, 244 orr.

24. César de la Lama: *op. cit.*

25. Txema G. Crespo: *La capital de los museos*. El País. 1999-11-27

26. César de la Lama: *Julio Beobide, ante la última obra de su vida*. ABC. 1967-10-8

Kaputxinoak “Kresalara” joaten ziren lanaren aurrerakuntzak ikustera eta, kotxerik ez zuteenez, Felix Oiarbide erakitzailak eramaten zituen bere ibilgailuan. Bisita horien ondorioz argi geratu zitzaizen Beobide ez zela lana bukatzeko gauza izango.

“Beobide ha pasado el invierno medianamente. Tres meses en cama el pasado año, sin poder bajar al estudio, donde transcurre su vida, aquejado de una dolencia que él califica ‘grave’.

– Durante años no he esculpido ‘un Cristo’ por temor a no interpretar el dolor de su rostro. Por eso ahora, rotas las ligaduras invisibles que paralizaban mis manos, realizaré mi último Cristo en este mundo”<sup>27</sup>.

Eta aurregago:

A los 77 años, en 1968, Beobide realiza su último Cristo. Trabajó hasta el último día de su vida, él sólo, sin ayuda de nadie. Apenas le quedaban fuerzas para manejar la gubia. Pero él seguía allí. Con una gran inspiración y sin boceto alguno continuó tallando directamente el gran bloque de madera de caoba, donde dejó puesta su alma de artista.

Nos muestra un rostro que está al borde mismo de la muerte, que ya empieza a velar la visión de sus ojos. Desde luego es el último suspiro de la vida que le abandona, Es la paz de haber terminado su trabajo, un gran trabajo. Su alma y su conciencia tranquilas pueden expresar: *Consumatum est... todo está acabado*. (San Juan XIX, 30).

(...) Prácticamente el cuerpo está acabado, le faltan los brazos y su mano izquierda apenas iniciada, encierra dentro de sí –nos hace adivinarlo– una auténtica mano crispada por el dolor.

Con ese acercamiento comunicativo que produce el ver hecha una obra desde su interior, desde la madera, con los golpes de gubia y de cincel vivos aún, nos damos cuenta que es la propia mano del artista que tantas y tantas veces observó y escudriñó en diversos movimientos dolorosos en un afán de dar a sus figuras realismo y vida.

Es una imagen del todo impresionante, inspira un respeto infinito y se presiente en él la agonía de un cuerpo humano.

Beobide, encerrado ya en su dolor, practicaba el oficio como si fuera un rezo. Nunca le dio importancia a sus obras. Para él todas ellas eran un aprendizaje. Sus últimas palabras, pocos días antes de morir, viendo que no iba a poder

27. César de la Lama: *Julio Beobide, ante la última obra de su vida*. ABC. 1967-10-8

acabar este Cristo, nos dan una idea de su alma humilde y sencilla de artesano ...*Ahora que sé lo que es la escultura, ahora que comienzo a dominar la técnica, ya no tengo fuerzas para seguir trabajando...*<sup>28</sup>

Beobidek bere bizitzaren azken urteak eman zituen irudi hau lantzen: hil zenean oin, gorputz-enbor eta buruaren gehiena egina zuen, baina besoak ez. Nahiz eta bere azkenetan egon, ez zuen bere lan egiteko modua aldatu: "Trabajo sin prisas, despacio"<sup>29</sup>.

Beobideren senideek, oso modu hunkigarrian, zera kontatu zidaten: artista oso ahulduta zegoen eta ez zen mailuari eusteko gauza; hortaz, aulki bat jarri zioten eskulturaren ondoan, Beobide han eseri eta, lima bat eskuan hartuta, behin eta berriro eragiten zion eskulturari geratzen zitzazkion indar apurrekin. Alferrikako lana zela jakin arren, artistak ez zuen sekulan amore eman.

Lehenago irakurri dugun moduan Tarsicio Azconaren hitzetan, Beobide hil ondoren Kaputxinoek zera proposatu zioten sendiari: beste artista batek eskultura hori bukatzea, baina familiar ezetza eman zien, maisu baten lanean inork ezin zuela eskua sartu iritzita. Beobideren hiletetara joandako hainbat artista iritzi berekoak izan ziren<sup>30</sup>.

28. Ana María Gutiérrez Márquez: *op. cit.* 34, 35

29. César de la Lama: *op. cit.*

30. Txema G. Crespo: *La capital de los museos*. El País. 1999-11-27

Eta hantxe geratu zen Kaputxinoen Kristo gurutziltzatua: Beobide hil aurreko leku berean, jarrera berean, amaitugabe hori berean.

Geroago, Donostiako gotzainak –Jacinto Argaya, ziurrenik– Kresalara egin zuen bisita bat eta Beobidetarrek azaldu zioten han zeukaten Kristoa Errenteriako Kaputxinoen elizarako zela, baina Kaputxinoek ez zutela bukatu gabe eraman nahi izan. Gotzainak hori entzunean eta obra eder hori begien aurrean zuela, esan omen zuen "A, ze memeloak!". Behintzat, hala kontatu zidan Beobideren semeak.

Azkenean, Rafael Huertari (Bilbao, 1929) enkargatu zioten Beobiderenaren ordezkoi Kristoa<sup>31</sup>.

"Estos señores (Arrimbieta) fueron quienes nos pusieron en contacto con Rafael Huerta Celaya, quien esculpiría el Cristo que preside el templo parroquial"<sup>32</sup>.

Huertaren obra hori ez da batere txarra, baina haren aurrean ez dugu sentitzen, inondik inora, Kresalako Kristoaren aurrean sentitzen dugun zirrara: Beobidek gorputz-arima jarri baitzuen bere azken lan horretan.

31. Elizako beirateak "Vidrieras y Artistas de Irun" enpresak egin zituen (hain zuzen, Biteri Txiki kalean dagoen Olaziregi botikarena egin zuen enpresa berak). Enpresaren jabeek, Arrimbietarrek, harremanetan jarri zituzten kaputxinoak eta Rafael Huerta eskultorea. Esan behar da Errenteriakoa ez dela egile horrek egin duen Kristo gurutziltzatu bakarra, baina bere obrarik ezagunena Iruñeko kaleetan dagoen "Entzierroa" eskultura-multzoa izango da, beharbada. Huertaren Kristoa obra duina da, baina ez du, ezta gutxiago ere, Beobiderenaren indarra. Tarsicio de Azcona: *op. cit.* 239 orr.

32. Tarsicio de Azcona: *op. cit.* 239 orr.



# de **CYNE REYNA:** 20 años de andadura (y lo que te rondaré, morena)

L. M. Moreno "Pirata"

Corría el año 1991 (uno era componente por aquella época de la *txaranga* "Los Incansables" y empezaba a hacer sus pinitos como saxofonista colaborando con algún grupo de pop y rock). En realidad, 1991 acababa de empezar a gatear cuando tres individuos juntaban sus fuerzas para emprender una nueva andadura en lo que ha sido (y es) un referente en la vida musical de este pueblo: el bar "de Cyne Reyna".

Txomin, Fernan y Txema (los pongo por orden cronológico para que no haya interpretaciones del tipo "¿a quién quieres más, al *aíta* o a la *ama*?", que nos conocemos...) decidieron juntarse tras la andadura en Txintxarri y otros colectivos del pueblo y estaban preparándolo todo para, el día 31 de enero de 1991, abrir esa puerta que tantas veces he tenido el lujo de traspasar.

Errenteria era, por entonces, un pueblo más alegre y vivo que ahora, por lo menos musicalmente hablando, que es en el mundo en el que más me he movido; aunque creo que también lo era en muchísimos más aspectos de la vida cotidiana. Salías a la calle cualquier día y había otra vida que en estos momentos no existe o ha menguado en exceso, para mi gusto, por distintos motivos que no vamos a enumerar aquí. Pero no nos pongamos nostálgicos.

El 31 de enero de aquel año se abría un bar en la Alameda de Gamón donde antes estuvieron el bar "Campoamor" y después el bar "Alameda", también conocido como "el bar del gallego", a donde solíamos ir a almorzar a menudo, y que pasaba a denominarse bar "de Cyne Reyna" en recuerdo de aquel cine, el "Salón Reina Victoria", situado en la calle Viteri y por el que creo que pasamos todos los de este pueblo, disfrutando de sus sesiones de cine, hasta su cierre en 1989 y posterior derribo.

La decoración del bar evocaba (y evoca aún) a un cine de verdad, con su patio de butacas, su anfiteatro (espectacularmente usado como botellero) y su escenario donde hemos visto alrededor de 500 películas en forma de conciertos, teatro, humor, etc.

Estos tres individuos no llegaban a la treintena de años y derrochaban energía por los poros de su piel. Y tuvieron a bien canalizar parte de esa energía en programar los jueves actuaciones musicales, teatrales y de todo tipo para así darle un toque distinto y singular a su local y distinguirlo de los demás bares de Errenteria, en los que no había actuaciones musicales (las anteriores creo que fueron en el "Penny Lane"...)

Por ese escenario han pasado artistas y grupos de todo tipo. Creo recordar que lo estrenó Iñaki Salvador con Javier Colina y después han pasado por ese escenario Golden Apple Quartet, Australian Blonde, Para Lelos (que en gloria estén), Fernando Telletxea "Fama", Sonora Candela, Tapia eta Leturia Band, Angel Celada, Andrezej Olejniczak, Agustín Guereñu, Carlos Velasco, Les Mecanicis, Blues Thorpes, Erreka, Boogie Van, Bizkar Hezurra, KE+DA, Bihotz Erre, No Toxic Pipe, Mikel Urdangarin, Bide Ertzean, Furunda, Botxo Boogies, Mikel Markez, Amaia Zubiria, Ñako Goñi, Malcom Scarpa, Santi Ibarretxe, Billie Jeans, Dikers, LosDelGás y así hasta unas 400 agrupaciones artísticas de toda índole (recuerdo que tuvieron que decir que no a Fito&Fitipaldis en sus inicios por problemas de fechas) que han llenado ese escenario y el bar entero con su arte y su saber hacer y estar.

Gente de todo tipo y muchos de los más grandes músicos del panorama euskaldun, estatal e incluso mundial (parezco de Bilbao pero no, es cierto) que han llenado los jueves por la noche y

han hecho que la gente olvidase por un momento la semana de trabajo y disfrutase de un rato de buena música, de teatro, magia o de lo que fuere. Gente que aparece jueves tras jueves por el "Reyna" a ver qué hay porque sabe que siempre (o casi siempre) hay algo que ver y si no lo hay pues se improvisa.

Pues de aquel 31 de enero de 1991 han pasado ya 20 añitos nada más y nada menos y muchas cosas han cambiado en el pueblo. Muchos han venido y otros se han marchado. Pero el "Reyna" sigue ahí en pie, con su mejor cara, esperando a que entres para que te sientas como en casa. Siguen, como el primer día, Txomin, Fernan y Txema al pie del cañón (aunque con veinte añitos más, que no se les notan demasiado, no vayan ustedes a pensar mal...) en el más extraño caso que he conocido de negocio de hostelería a tres bandas en el que los tres socios se siguen llevando de maravilla (y por muchos años) de lo cual me congratulo; y con ellos también está Igor Zubieta, que es como el cuarto de "Los tres mosqueteros".

Y servidor de ustedes (como muchos) lleva veinte años tras sus huellas intentando ayudar en lo que sea menester y haga falta para que continúe la fiesta y siga habiendo en este pueblo un local donde tengan cabida la música, el humor, el teatro y el arte en general, a pie de calle y para todos.

Larga vida al "de Cyne Reyna".

Dentro de otros veinte nos vemos, aunque sea con cachaba....



Fernando Telletxea Fama



Golden Apple Quartet



Iñaki Salvador - Javier Colina



LosDelGás



Para Lelos

# Jautarkol, Aitzol eta... Xenpelar

Elixabete Perez Gaztelu

**Z**er lokera klase dute, bada, *Aitzol* tolosarrak eta *Jautarkol* eta *Xenpelar* errenteriarrek? Galdera horri erantzuten ahaleginduko naiz hurrengo lerroetan, Tolosatik iritsi zaigun *Aitzol-Euskal Pizkundearen* urtearen aitzakian.

2011 urtea hautatu dute gerra aurretsuko Euskal Pizkundera ahanzturaren atzaparretatik askatzeko, aurten betetzen baitira 75 urte Jose Ariztimuño Olaso *Aitzol* apaiz tolosarra urriaren 17an hil zutela. *Aitzolen* eta beste milaka gizon-emakumeren heriotza, sufrikarioa, eta kultura mugimendu oso baten egitasmoa eta ahaleginak bortxaz eten zituztela betetzen diren urte berak. Kultura uholde hartako osagai garrantzitsuak izan ziren bai *Aitzol*, bai Luis Jauregi Etxenagusia *Jautarkol* (1896-1971) eta baita Jose Franzisko Petriarena Berrondo *Xenpelar* ere (1835-1869), hiru bidegile, nor bere gisara eta modura.

## **AITZOL ETA JAUTARKOL EUSKAL PIZKUNDEAN**

Garai-giro beretan bizitzea egokitu zitzairen *Aitzol* eta *Jautarkol* gipuzkoarrei: 1896an jaio ziren biak (San Jose egunean tolosarra, San Luis egunean errenteriarra) herri eta familia euskaldunetan, biek aukeratu zuten apaiz bideari ekitea eta biek formazio bera jaso zuten, euskal literaturan oro har eta Euskal Pizkunderan bereziki arrasto sakona utzi duen Santanderreko Comillaseko ikastetxean. Ez da eta zokoratzekoa jesuiten apaiztegi hartan, *Aitzol* eta *Jautarkol* ez ezik, euskal letretan nor izan ziren beste hainbat ere elkarrekin suertatu zirela: Joseba Markiegi (1894-1936), Nemesio Etxaniz (1899-1982), Jokin Zaitegi (1906-1979), Andima Ibiñagabeitia (1906-1967)..., eta literaturako eta euskarako irakasle aukera-aukerakoak izan zituztela: Jose Maria Estefania Zabala bilbotarra (1889-1942) eta Nikolas Ormaetxea *Orixe* (1888-1961).

*Aitzolek* eta *Jautarkolek* Comillasetik atera ondoren ere ez zuten eten bere arteko lotura. Errenteriarrek, apaiztu ondoren Buradongo Gatzagan lehen urteak eman eta gero (1921-1925), Altzo-Muñon eta Anoetan urte batzuk egin zituen (1926-1936) eta denbora horretan

“Tolosako taldetxoarekin” (*Montoia, Lizardi, Olano* anaiak, *Aitzol*...) harreman estua izan zuen. *Jautarkolek* euskarazko eskolak ere eman zizkien taldekide batzuei, besteak beste, Maritxu Irujo eta Miren Karmele Zabalari, Agirre lehendakaria izango zena-ren andregaiari.



Jautarkol

Sasoi horretan, *Aitzolek* eta *Jautarkolek* bere burua hezur-muinetaraino murgildu zuten seguru-erik euskal kulturak –euskal literaturak bereziki– ordu arte inoiz bizi izan ez zuen tamainako giroan. Xedea: bere buruaren jabe izan nahi duen herriak gainerako herri askeen artean bere lekua irabaziko badu, bere kultura, bere literatura jorratu beharrak ditu.

Helburu hori Euskaltzaleak kultur talde apolitiokoaren bitartez bideratu eta gauzatzen joan ziren, 1936ko altxamendua arte. Puntu honetan gogora dezagun *Lizardiren* eta *Aitzolen* gidaritzapean gero horrenbesteko entzutea hartu zuen taldearen



Aitzol, Jautarkol, Montoia, Agirre, M. Zabala, Miren Irujo.

lehen urratsak oso apalak izan zirela. Elkartearen hasierako ekitalditzat 1927an Arrasaten egin zuten Euskararen eguna jotzen bada ere, atzerago egin behar da oinarria bilatzeko: jende batzuek, gerran fusilatu zuten Angel Osoro (*Angel Mutriku*) igeltsero euskaltzalea buru zutela, Elgoibarko San Lorenzo auzoan euskal jai xumea antolatu zuten 1926ko urriaren 17an (hamar urte geroago Aitzol fusilatu zuten egun berean). Handik joan zen hedatzen elkarteak: 1930 inguruan 2.000 bazkide zituela badakigu, eta lortu ere lortu zuen Euskal Herriko herri askotan azpiegitura bat osatzea. Beste behin ere, izen eta ekintza sonatuen atzean handiek itzalpean utzitako jende askoren ekintza txiki asko daude. Gaurko ikuspegitik, halako zer-bait gertatu bide zaie *Jautarkoli* eta beste askori.



Jautarkol. Bedoñako Saria. Aitzol 1935.

### **NOLAKO EUSKAL POESIA: HIRU BIDEGILEEN UZTARDURA**

Esan bezala, elkarren besotik aritu ziren *Aitzol* eta *Jautarkol* (bigarren) Euskal Pizkundea deitu izan den mugimendu hartan, baina ez ziren aritu modu berean. Aitzol gidaria eta ekintzalea da, eta lehen lerroan ageri da beti, suspertze lanean: hitzaldiak direla, euskal kulturako ekitaldiak direla, eta, batez ere, iritzi artikulua direla (*Euzkadi* eta *El Día* bakarrik hartuta, 1930-1936 epean 500 bat argitaratu zituen bere izenean). Pentsalari, antolatzaile eta akuilaria da *Aitzol*, hortaz, baina ez da literatura-sortzailea, ez zentzu hertsian bederen.

Euskal literaturaren soroan –bere kritikak irakurri besterik ez dago– esan daiteke *Aitzolek*

bere burua sortzen baino gehiago ikusten duela sortzaileei adierazten nondik jo beharko lukeen euskal literaturak, euskal poesiak batik bat. Eta, ikusiko dugun bezala, hortxe egiten dute topo *Aitzolek*, *Jautarkolek* eta *Xenpelarrek*.

*Jautarkol*, *Aitzol* bezalaxe, Euskaltzaleak taldean euskal kultura suspertzen ere badabil, baina batez ere literatur gizona da: artikulua eta ipuingilea, itzultzailea eta, guztiaren gainetik, olerkaria: 19 urte besterik ez zituela argitaratu zuen lehen lana olerkia zen, “Agur Aberria”.

Eta poesiak lotu zituen batez ere *Jautarkol* bidegilea eta *Aitzol* (eta *Pizkundea*); zehatz esan, *Biozkadak* argitaratzeak (1929). Liburu horren kariaz hasi ziren, hain zuzen, euskal olerki egunak urtero antolatzen. *El Día* egunkariak lehen alea argitaratu zuen egun berean egin zuten lehena, 1930eko ekainaren 1ean, Erreterian. *Lauaxetak* irabazi zuen.

Ahotan dugun lotura argi baino argiago erakusten digute *Aitzolen* 1933ko hitzok:

Don Luis de Jáuregi había publicado su primer tomo de poesías titulado “Biotzkadak” [sic]. Fue muy favorablemente acogido por la crítica. Se hizo, impensadamente, un favorable ambiente en favor de la poesía vasca. Coincidió por aquellos días la celebración del clásico ferrial donostiarra de Santo Tomás. Reunímonos un grupo de amigos euskeltzales. Entre ellos se hallaba Lizardi. En la conversación surgió la idea de organizar un homenaje a Jauregi, en Rentería. Para estimular la poesía vasca se acordó celebrar un certamen. El premio de honor sería algo simbólicamente vasco. Un ramo de roble en plata.

Ez da hor bukatzen, ordea, *Biozkadaken* garrantzia. Plazaratu zenean euskal kritikariek (D. Intzak, *Lauaxetak*, *Orixek*, *Aitzolek*...) oso ongi hartu zuten. Areago, batek baino gehiagok, *Aitzolek* barne, era horretako poesia ikusi zuten euskal olerkigintzaren geroa: erraza, irakurle askorentzako modukoa, eta ez euskal olerkari batzuk (*Lauaxeta*, *Lizardi*) esperimintatzen ari ziren poesia berritzaile eta zaila. Izan ere, *Aitzol* eta beste beldur ziren euskal poesia asko urruntzen bazen ohiko bideetatik galduko zituela lehenagotik ere oso ugariak ez zituen irakurleak. *Biozkadak* aukurakoa zen euskal poesiak nondik jo behar zuen erakusteko.

Bazen besterik ere tartean. Gasteizko seminarioan irakasle izan zuen Manuel Lekuonaren irakasbideei jarraiki, *Aitzolek* pentsatzen zuen euskal estetika bilatzeko herri literaturara begiratu behar zela eta, era berean, prestigioa eman behar zitzaioela, eta, ereduak bilatzen hasita, *Xenpelar*

ez zen desegokiena. Hementxe egiten dute bat hizpidean ditugun hiru bidegileek: *Aitzolek* eta *Jautarkolek* bertsolaritzaz eta *Xenpelarrez* idatzi zuten. Erreteriar olerkaria, gainera, gerra ostean ere ez zen bere sorterrikideaz atzendu eta 1958an *Xenpelar bertsolaria*. *Bizitza eta bertsoak*, oraindik ere bertsolariaren berri jakiteko irakurri beharreko saiakera polit askoa, kaleratu zuen.

Hiru bidegileak ahotan hartu ditudala eta, aukera honezaz baliatu nahi dut adierazteko lehen beste biek zuten bezala, *Xenpelarrek* ere baduela orain *Bidegileak* bilduman bere liburuxka (61.a) erreteriar honek idatzia. Paperean ez ezik, euskarri digitalean ere eskura daiteke ohiko helbidean ([http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara\\_sustapena/bidegileak/indice\\_e.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp)).

\* \* \*

Espero dut hasierako galderari erantzun izana eta, horrekin batean, batzuen distirak itzali samar utzitako *Jautarkoli* Euskal Pizkundean zor zaion –eta aurten bertan beti aitortu ez dioten– lekua aitortzeko bidean lagundu izana. Beharrik, aurtengo Euskal Pizkundearen antolatzaileen eskariz Anjel Lertxundik idatzi duen aldarri estimagarririk xeheki jaso ditu gerra aurreko mugimendu hartan modu batera edo bestera euskal kulturaren alde lan egin zuten 78 gizon-emakumeren izenak. *Jautarkol* merezi zuen konpainia noblean paratu du.

Aitzol eta Lizardi, Lauaxeta eta Antonio Maria Labaien, Doroteo Ziaurritz eta Ixaka Lopez Mendizabal, Juana Mendizabal eta Elbira Zipitria, **Jautarkol** eta Orixe, Pio Montoia, Julene Azpeitia eta Errose Bustintza...

<http://www.euskalpizkundera.net/aldarria.pdf>



Olerki Eguna, 1930. Foto Marín.

Jon Arretxe

# Soy Gonzalo, traigo berros



El *aitona* Gonzalo. Ilustración de Jon Arretxe.

**E**n la vida, hay algunas cosas que casi nunca se olvidan. Una de ellas es el último amor. Otra, la persona que nos enseñó a silbar.

A silbar me enseñó mi abuelo, el *aitona* Gonzalo.

“Antes de nada, solía decirme, tienes que pasar tres veces la lengua por los labios. Es para afinarlos, una, dos y tres, y que la música vuele alto”.

El *aitona* Gonzalo tenía una máquina de escribir con faltas de ortografía.

## 1 Primera

**En casa bien aireada el mal no encuentra posada**

Así empezaban las “Máximas para estar como una rosa” de Gonzalo Gutiérrez Urbina, estudiante naturista.

El *aitona* firmaba así porque siempre estaba estudiando. Estudiando y aprendiendo.

Aprendiendo y enseñando. Como Cantinflas en “El analfabeto” que, por las tardes, enseñaba a sus amigos las letras que él acababa de aprender por la mañana.

## 2 Segunda

**En la tranquilidad descansa la salud, y en la salud, la tranquilidad**

Yo, por más que miraba las teclas de la Olivetti, no encontraba las faltas de ortografía por ningún sitio.

El *aitona* Gonzalo sabía un montón sobre silbar, y otro montón, aún más grande, sobre plantas medicinales.

“De entre todas las plantas, una de las más beneficiosas es la llamada cola de caballo, que tiene la virtud de regular y tonificar el organismo. Si tienes diarrea, te la corta, y te suelta cuando tienes estreñimiento”.

El *aitona* sabía un montón sobre plantas medicinales, cuando ninguno de nosotros sabíamos nada. Ni nosotros ni nadie. Eran años en los que todavía no existían las herboristerías, ni las tiendas de dietética, ni los expertos en nutrición. Tampoco había macrobióticos, ni ovolactovegetarianos, ni café descafeinado. Sacarina sí, pero sólo en algunas casas.

### 3 Tercera

La cola de caballo sana  
y engorda al amo

Me gustaba acompañarle por las campos de Alaberga, en busca de la tan preciada cola de caballo. También íbamos juntos a coger menta, junto a las vías del topo, en un rincón donde él solía plantarla.

“Las plantas que crecen junto a las vías, además de sus propiedades inherentes, nos ofrecen las del hierro, que son muchas”.

Otras veces, recogíamos berros, para acompañar las ensaladas, en un sitio secreto que no voy a desvelar, y que sólo conocíamos él y yo.

El *aitona* Gonzalo me enseñó a silbar, mojando los labios hasta tres veces, con la punta de la lengua. Y también me enseñó a silbar con el sonido profundo que esconden las caracolas marinas. Para eso, había que ahuecar las dos manos y soplar lentamente dentro de ellas, a través de la rendija que se formaba entre los dedos pulgares.

El *aitona* sabía un montón de cosas sobre plantas medicinales. Otro montón sobre hierbas, y otro, sobre silbar. Y, a veces, mezclaba los distintos conocimientos. Por ejemplo, cuando silbaba soplando sobre el canto de la hoja de un arbusto convenientemente doblada. O, cuando lo hacía a través de una hierba larga y ancha, sujeta, con cierta habilidad, entre los dedos pulgares de ambas manos. O ayudándose de un hueso de albaricoque al que, previamente, había vaciado la simiente.

“De las plantas y el silbar”, escrito por Gonzalo Gutiérrez Urbina, estudiante naturista.

El *aitona* nació en Fresno del río Tirón, un pueblecito de la provincia de Burgos, en el año 1900.

Por eso decía, siempre que tenía ocasión, que él iba con el siglo. El resto de los mortales estábamos



obligados a hacer una resta para calcular la edad que íbamos a tener cuando llegase, por ejemplo, el esperado año 2000. El *aitona*, no. Como iba con el siglo, apenas tenía que calcular nada.

### 4 Cuarta

Cuida la naturaleza  
y ella cuidará de ti

Todos los años, al finalizar el buen tiempo, el *aitona* Gonzalo visitaba las casas de los parientes regalándonos buenos consejos y un surtido, minuciosamente etiquetado, de plantas medicinales. “Son para las enfermedades que vienen con el invierno. Para los catarros, *berbena-belarra*. Diente de león para facilitar la circulación de la sangre. Y cola de caballo, que es buena para casi todo. Ya se sabe, la cola de caballo... sana y engorda al amo”.

Lo primero que había que hacer era desgastar el hueso del albaricoque, raspándolo insistentemente contra una pared o contra el suelo, hasta conseguir abrirle un agujero. Luego, con la punta de una aguja, se iba sacando, poco a poco, la almendra tierna. Una vez vacío, se colocaba el hueso bajo el labio inferior, se soplabá con fuerza y con tino, y una música de tren salía volando por el aire.

### 5 Quinta

De opíparas cenas,  
las tumbas están llenas

Y lo mismo hacía con los primeros calores del verano. Cuando empezaban a alargarse los días, el *aitona* venía a casa para abastecernos de aquellas plantas que curaban los trastornos que, muchas veces, provoca el calor. Cilantro, contra las diarreas. Hinojo, para prevenir cualquier tipo de alergia. Y, cómo no, cola de caballo, que es buena para casi todo, y sana y engorda al amo.

El *aitona* Gonzalo y la *amona* Josefa llegaron a Rentería al poco de casarse. Él, que era muy manitas, enseguida encontró trabajo en La Esmaltería.

El *aitona* era muy hábil y muy ingenioso cuando se trataba de reparar cualquier cosa que se hubiera roto. Metía la mano en alguno de sus bolsillos y sacaba todo lo necesario para hacer un apaño. Desde un fino hilo de cobre para limpiar el quemador de un calentador de gas hasta la espiral de una vieja libreta para arreglar el muelle roto de un flexo. De todo había en sus bolsillos prodigiosos. Como de la chistera de un mago, el *aitona*



extraía de ellos cualquier cosa que antes hubiera encontrado por ahí: una horquilla, un cordel, dos muelles engarzados uno en otro, un tapón de corcho y otro de plástico, tres arandelas, una bolsa de papel, dos clavos aplastados, una chapa y una pila.

El *aitona* era muy ingenioso para arreglar cualquier cosa que no fueran sus propios bolsillos que, a fuerza de guardar cachivaches, siempre acababan rotos.

Los bolsillos del *aitona* los arreglaba la *amona*, que no era tan ingeniosa como él pero sabía zurcir.

“El pitido de los trenes suena a albaricoque”.

—¿Es otra de tus máximas para estar como una rosa, *aitona*?

—No. Es una greguería, de Ramón Gómez de la Serna.

#### 6 Sexta

La cara es el espejo del alma,  
y los ojos, el espejo del cuerpo

El *aitona* aprendió a diagnosticar enfermedades, observando con detenimiento el iris en los ojos de quien se dejaba. Ayudándose de una lupa, escrutaba las líneas, los colores y las sombras que rodean la pupila, como quien estudia el misterioso mapa de un tesoro.

Una tarde que íbamos paseando junto a la carretera general, justo antes de llegar a la alameda pequeña, el *aitona* me enseñó unas marcas muy extrañas en la piedra arenisca de una casa. Se trataba de unas hendiduras bastante profundas, que se cruzaban unas con otras en línea recta, sin ningún orden aparente. También las había que discurrían paralelas entre sí, y no llegaban a cruzarse.

Estaba claro que eran resultado de la erosión, pero no de la del viento, tal y como la estudiábamos en la escuela. Parecían más bien obra de la mano humana, como toscas muestras del arte rupestre de nuestros antepasados.

Ante mi asombro, y mi incapacidad para dar una explicación sobre el origen de las enigmáticas muescas, el *aitona* me contó que, hacía ya muchos años, había estado cerca de ahí la escuela de doña Rosa, y esas marcas eran el resultado de la acción de sus alumnos cuando frotaban contra la pared los huesos de albaricoque para fabricar sus silbatos.

#### 7 Séptima

En el vino, la verdad.  
En el agua, la vida

El *aitona* tenía muchos admiradores. A veces, cuando yo iba por la calle, me paraba alguno de ellos, y me decía: “¿Tú eres nieto de Gonzalo, no? Tu abuelo me curó la vista”.

Tenía, también, algunos detractores con los que, a veces, me encontraba en esas mismas calles. “¿Tú eres nieto de Gonzalo, no? Tu abuelo casi me deja ciego”.

Recuerdo que, de niño, no debía de tener más de cuatro o cinco años, quise gastar una broma a mi madre. Llamé a casa desde el timbre de la calle, y cuando ella abrió la puerta y se asomó a la escalera, a preguntar quién era, yo grité desde el portal: “Soy Gonzalo, traigo berros”.

El *aitona* y la *amona* tuvieron siete hijos, entre ellos mi madre, veintiún nietos, entre ellos yo, y una tienda en la calle Viteri: la mercería Josefa. En la trastienda de la mercería, junto a los botones y los carretes de hilo, las plantas medicinales, al secarse, tejían en el aire un velo de fragancias silvestres.

#### 8 Octava


Para ser fuerte como el toro, no  
comas toro. Come lo que come el toro

El *aitona* usaba cataplasmas de *berbena-belarra* para curar todo tipo de males. Pero, sobre todo, para curar los catarros y otras afecciones del sistema respiratorio.

Primero, preparaba una especie de tortilla calentando en la sartén la *berbena-belarra*, mezclada con clara de huevo. Y después la colocaba sobre el pecho del paciente, envuelta y bien sujeta con una venda, cuando éste ya estaba en la cama dispuesto a dormir.

Y a la mañana siguiente, retiraba la cataplasma, ennegrecida como por arte de magia, contaminada con todo el mal que la hierba había conseguido arrancar de los pulmones enfermos.

La *amona* Josefa me aseguraba que la



máquina de escribir del *aitona* tenía faltas de ortografía. Pero yo, por más que buscaba y rebuscaba entre las teclas, nunca las encontré.

#### 9 Novena

No por mucho ayunar se adelgaza más temprano

El *aitona* salía de casa sin rumbo fijo, y lo mismo encontraba berros y manzanilla que un imperdible y dos tuercas con las que arreglar, en otra de sus salidas, una estufa eléctrica o una máquina de coser. También podía encontrarse en el camino con un conocido al que mirarle el iris para avisarle de cualquier enfermedad.

El *aitona* iba con el siglo. Pero siglo y *aitona* se separaron en 1981. Él se detuvo, y el siglo continuó solo, casi una veintena de años más.

#### Y 10 décima

El silbido es la música de la salud

A veces, sueño con el *aitona* Gonzalo.

–¿No estabas muerto? –le pregunto.

–Sí. Pero me han dado permiso para que pase el día recogiendo hierbas contigo.

Yo, entonces, me pongo muy contento. Pero enseguida me despierto con la sensación de profunda tristeza que suelen traer ciertos sueños. Me quedo un rato en la cama, pensando en él, y me inunda su olor a tomillo, a plantas y a bosque. Repaso, como si fuera una película que hubiese visto hace mucho tiempo, cada uno de los recuerdos que guardo de él; y releo sus “Máximas para estar como una rosa”, una a una, de la primera a la última, en el mismo orden que Gonzalo Gutiérrez Urbina, estudiante naturista, las escribió.



El *aitona* Gonzalo.



# Errenterian zer

Felipe Iruaristi

**E**z da zaila azaltzen zergatik joan ginen, andregaita eta biok, Errenterira bizitzera. Zailagoa da, zailagoa zait, zailagoa zaigu, erabakia onartu aurreko gorabeherak beren zentzurik sakonenean hartzea, sakonekoa, gehienetan, azaleraingo etorri eta han ezkutatu egiten baita, milaka gauzaren artean. Lehen begi kolpez ez dugu jakingo azalean dagoenik. Gogoan dudanez, Edgar Allan Poek ipuin batean, *Gutun Ostua* izenekoan hain zuzen, ekarri zuen lehendabiziko aldiz, nik dakidala, gaia. Ostutako gutuna denen begien aurrean zegoen, baina inor ez konturatu horretaz.

Donostian ez zegoen modurik pisu batean eroso, lasai eta duintasunez aurkitzeko. Zegoen apurra, garai hartan, eskasa zen, eta egoera txarrean zegoen, edo oso garestia zen. Gauzak, alde horretatik, ez dira gehiegi aldatu. Etxebizitzak gure Donostian, zerutik gertu daude, prezioari dagokionez, nahiz eta gero eta lurtean finkoagoa izan. Saiatu izan naiz orduko giro nahasi eta, zenbaitetan, etsigarri hura literatura-orrialdeetara ekartzen. *Etxearen negarra* idatzi nuenean, bila ibilitako denboraldian ikusitako etxeen oihartzuna eta haien arrastoa neramatzan begietan, hodeia balitz bezala: hodei beltza, noski. Egia esan, garai hartan bai Donostia eta bai Errenteria eza-gutzeko aukera izan genuen, etxe bila, edo etxe bila genbiltzan kariatz eta aitzakiaz. Prozedura eta

ekintza-plangintza errazak ziren oso. Goizean goiz, egunkaria hartzen genuen, ez edozein egunkari, etxe bila ibilitakoak badaki egunkari batzuk beste batzuk baino eraginkorragoak direla etxe bilatzeko jardunean. Orrialdeak pasatzen genituen etxe-eskaintzak azaltzen ziren txokoraino. Hartara geundelarik, arkatza eta koaderno txikia eskuetan, apuntatzen hasten ginen, gure inozotasunean interesgarritzat jotzen genituen etxeen telefonoak. Deitu, zita egin eta aurrera.

Esan beharrik ez dago, alegia esatea ere ez dago sobran, metodo arrazional eta zientifiko horren bidez ez genuela ezer lortu.

Azkenik, Errenteriako kale batean Azkoitiko lagun baten ezagun batekin topo egin genuen. Galdetu zigun ea zer egiten genuen han, sorterritik hain urruti eta hain galdu itxurarekin, jakinekoa baita, edo behar luke izan, sorterritik urruti ibiltzen denari galdu itxura ezartzen zaiola, gorputz eta arima begietan, noski. Lagunaren ezagunak etxebizitza-agentzia bat zeraman beste sozioren batekin, zeina ezagutzera ez baikin iritsi, eta berak, azkoitiartasunaz fidaturik, oso bezero elegante, errefinatu eta dirudunei soilik eskaini ohi zien etxea eskaini zigun, gu izateke (horixe behar genuen!) elegante, errefinatu eta, are gutxiago, dirudun. Kapitanenea kalean, hain zuzen. Erraz esaten da, baina mundu guztiak ez du bere bizitza asketxo



eta ditxaratxero horretan hiri bateko alderdi zahar-  
rean bizitzeko bermerik. Guk, bai.

Paperak sinatu, banketxeko datu benetakoak eman, bada ezpada ere, eta berehala abiatu ginen hurrengo urte mordoska batean gurea izango zen etxera, alokairu batez truke, ez pentsa doanekoa zenik. Sartu eta maitemindu egin ginen, ez ni andregaiaz edo hura nitaz, lehendik hori ere geure baitaratua baikenuen, alegia ez genion elkarri galdetzen ea maite ote genuen batak bestea, maitasunean eroriak eta erotuak baikeunden biak ala biak. Etxeak hartu gintuen bere besoetan, eta kulunkatu ere bai gu, bata bestearen magalean: inaugurazioa errituzkoa eta konplutua. Madalena bezperak ziren, egun seinalagarria Erreterian.

Kalera atera ginen, jaiaz gozatzea besterik ez genuela buruan. Zertarako kezkatu? Etxea genuen; eta ez edozein tokitan, Kapitanenea kalean baizik, alde zaharrean, Udaletxetik eta Zumarditik gertu, non erreteriarren bizi pozak eta nekeak igarotzen diren, dantzaldi batetik besterako unean. Etxea genuen; ez ginen beraz zertaz kezkatu, etxea baita gizakion lehen gorputza eta bigarren arima. Etxea genuen, toki bat elkar babesteko, elkar

zaintzeko, elkar maitatzeko, elkarrekin lo egiteko, oherik gabeko logelan, zoruaren gainean bazen ere. Erreterian geunden, Madalenak jai giroan ospatzeko. Motiboak genituen. Gazteak ginen, adorea genuen, eta ez gutxi, izarren haragi hezurra marruskatzeko adina, bai horixe.

Jai egun batez etxea hartzeak bere ondorioak dakartza. Pentsa daiteke, estreinako jai egun hori zorionean igarotzen bada, ondorengo egunak ere ezti loretan pasako direla. Aitzitik, lehendabiziko egun hori zorigabekoa bada, berarekin ekarriko duen soka estua izango da, eta bereziki ekar dezakeen giroa hits tristea. Ez du hutsik egiten.

Izan ere, urte politak izan ziren ordutik aurrerakoak. "Polit" a esan dut, euskaraz adjektiboak duen indarra eraman nahian. Neurgailurik balego inon, norberaren poza neurtzeko, esango nuke gureak, halakoetan, zortzitik gora joko zuela. Eta balego bizitza neurtzerik, bere gorabehera guztiekin, alegia bere alde eta ifrentzuekin batera, bere argi eta ilunekin, esango nuke erabateko bizitza izan genuela.

Orduak kalean joaten zitzaizkigun, kalez kale ibiltzea besterik ez genuela buruan. Eta kalean

dabilenari ez zaio goroldiorik atxikitzen oinetako zoletan, baina bai lagunak ibilbidean. Hasieran bat; gero, bestea. Horrela denboraldi txikian lagun asko egin genituen, errenteriarra, garai hartako errenteriarraz ari naiz, oso alaia baita, eta lagun giroa maite du, ezer baino lehen. Herri bizia zen orduko Errenteria; kanpotarra onartu egiten zuen, eta ez zion gehiegi eskatzen, errenteriaren usadioak errespetatzea besterik ez, alegia kaleko bizitzan parte hartzea.

Etxea lo egiteko zen, kaleko gertakariak eta ibiltariak uzten zuten neurrian. Behin baino gehiagotan gertatu zitzaigun, etxean lo egin ezin eta kalera joan beharra. Gezurra badirudi ere, gaur egungo ikuspegitik, beti aurkitzen genuen lagunak bat edo beste, presarik gabeko ibilaldia egiten.



Foto: Aitor González



Foto: Aitor González

# Recuerdos de mi pueblo

## Tamborrada de la Congregación Mariana de San Luis Gonzaga

Jose Luis Insausti Urigoitia

**¿S**erá verdad? Volver a recordar en mi tranquilo pueblo aquellas casas, aquellas personas, aquellos establecimientos, aquellas fiestas, aquella vida en general.

Las campanas no resonarán como antes en mi corazón y el campo no tendrá los mismos aromas, ni el horizonte los mismos destellos que tenía en mi infancia, cuando las ilusiones se teñían de diferentes colores. Quiero que aviven en la memoria, con toda la fuerza de mis recuerdos, aquellos días en que no contábamos los años.

En alguna otra ocasión ya comenté, y es verdad, que desde mi humilde condición de simple aficionado a la lectura y a las cosas literarias, lo que más me gusta reflejar en mis escritos es todo aquello que se refiere a las pequeñas o grandes historias de nuestro pueblo. Esas historias que son como destellos de una forma de vida que, por unos motivos o por otros, ha ido desapareciendo: por las nuevas maneras de vivir, de relacionarse, etc.; en suma de entender la vida.

Miro atrás, hacia mis primeras imágenes de la vida en Errenteria-Orereta y recuerdo aquellas gentes maravillosas así como la imagen de un pueblo más pequeño y bonito. Lo que ocurre es que la Errenteria evocada de mi niñez no es como realmente fue sino como ahora la sueño y la seguiré soñando.

Agor denboran ura beste iturri batetik ekarri behar zen. Eta iturri hori baserritik urrutia-go zegoen eta ezin zen bonba bitartez igo. Ura ekartzeko astoa erabiltzen genuen. Erreterian eguneroko etxez etxeko esne banaketa egin ondoren, baserrira iristean astoarekin iturrira joaten ginen. Hamar minutuko bidea joateko, garoa eta ote artean. Iturrira iritsita, lehendabizi marmitak garbitu behar ziren, xaboi eta urarekin. Ondoren, marmitak urez bete eta buelta baserrira. Beste hamar minutuko bidea. Etxera iristean, marmitak ganbaraino igo behar ziren, ur deposituraino. Marmitekin sortu omen zen txinga proba! Eta agor garaietan lan hori egunero errepikatzen zen, zazpi egun astean: astelehenetik igandera arte. Baina, bazen egun bat benetan gorrotatzen genuena: arropa garbitzeko eguna. Egun “ospetsu” horretan bi edo hiru aldiz joan behar zen iturrira ura ekartzera eta beste horrenbeste alditan ganbaraino igo beharra zegoen.

Lehortea oso handia zenean –bi edo aldiz gertatua gogoratzen dut– Añabitarre ondoko bigarren

iturriko ura ere agortzen zen. Orduan ur bila joateko ordu erdiko bidea egin behar genuen. San Markoko magalean bazen iturri bat, Xabarako iturria deitzen geniona, eta hara joaten ginen ur bila. Horretarako behiak eta gurdia bukoiarekin erabiltzen genuen. Zer den bukoa? sagardoa garraiatzeko erabiltzen den upeltzarra. Horrela, agorte handia zenean eta inguruko iturriak agortuak zirenean, Xabarako iturritik bidaia bakoitzean mila litro ur ekarri genezakeen. Bukoitik ganbarako ur-biltegira ura igotzeko eskuzko ponpa erabiltzen genuen, zorionez honetan ura ez zen marmitetan eta eskuz igo behar.

1970. urtearen inguruan sareko ur korrontea iritsi zen Zamalbide auzoko baserrietara. Perurenatik pasatzen den Donostiarako ur bidetik ura hartzeko eskaintza egin zuten. Auzolanean lortu zen ur korrontea baserrietara ekartzea. Hura bai aurrerapena!

### Bi.- Behiak ferratzea

Behiak –gehien bat uztarran erabiltzen zirenak– ferratokira eraman behar ziren noizean behin, ferra berriak ipintzera. Pertsonak bezala, haiek ere “oinetakoak” aldatu beharra dute.

Eta ferrak etxetik kanpo aldatzen ziren. Badakizue, etxeko hautsa etxean garbitu behar da eta beraz, aurrena, behiak txukundu egin behar ziren, garbitu, kopetako txukuna jarri eta ferratokira abiatzen ginen. Errenterian ferratokia Santa Klara kalean zegoen, Estrata jaitsi eta aurrez aurre. Añabitarte baserritik gutxi gora behera 40 minutuko txangoa genuen.

Garai haietan ez zegoen trafiko handirik eta joan etorria lasaia izaten zen. Arazo bakarra, Estrata zahar, mehar eta malkar hura jaitsi eta igotzea zen, gehienbat igotzea, ferra berriekin.

Ferratokia oso leku berezia zen. Nik gogoratzen dudana kontatuko dizuet. Kanpotik, etxeak kurba egiten zuen. Barrutik, zaila da esplikatzeko. Behiak egon behar zuten egitura –astoa modukoa– dena egurrezkoa zen, azkazalak mozteko eta ferrak ipintzeko tresneria metalezkoa. Eta Santa Klarako ferratokiaren berezitasun nabariena, orain ere oso gogoan dudana, “oso leku iluna” zen, guztiz iluna, saietera eta atea kenduta hura itsua baitzen. Zer esango dizuet, lekua, ume begietatik ikusita? orain esaten den bezala: “ze siniestro”.

Ferrarena egin ondoren, buelta baserrira. Beste 40 minutuko bidea genuen zain eta oraingoan gainera aldapa gora. Ferratokia utzi bezain pronto igo behar zen orduko Estrata (oraingo



Santa Klara kaleko ferratokia, 1980

estrata –Tomas Lopez kalea– baina dezente malkaragoa) eta behiak ferra berriekin ziren; ez zen lana erraza haiek gidatzea. Are gutxiago eguna umela bazen. Baina, pazientzi pixka batekin, behin Gaztelutxo baserriko gaina harrapatuz gero, bidea erraxagoa zen.

### Hiru.- Sagardoa botilaratzea.

Aitortu behar dizuet sagardoa botilaratzea dela baserrian bizitutako urteetatik betiko geratu zaidan oroitzapen onenetako bat. Agian umea nintzelako eta ume begiekin gogoan dudalako. Auskalo!

Lan hau familiarteko giroan egiten zen, festa giroan. Oso egun alaia zen, behintzat nik hala gogoratzen dut. Baserritik kanpo bizi ziren familiakoak ere etortzen ziren. Sagardoa botiletan sartzeko eguna beti igandea edo jaieguna izaten zen. Baina askoz lehenagotik hasten ziren egun horretarako prestakuntza eta antolakuntzako lanak.

Garai hartan erabilitako xanpain botiletan botilaratzen zen sagardoa. Hura bai birziklatzea. Lehendabizi erabilitako xanpain botilak bildu egin behar ziren. Metatu eta gorde egiten ziren eta botilan sartzeko garaia iritsi baina egun batzuk lehenago hasten ziren garbiketa eta prestaketa lanak.

Baserriko zirkuituan sartzen ziren botila birziklatu "berriei" paperezko azalak kendu, kola ere bai, eta kanpotik ondo garbitu. Beste urteetako botilei barruan izan zitzaizketen kortxo zatiak atera eta garbitu. Eta botila guztiak, multzoka, kanpoko askan uretan ondo garbitu. Hori egin ondoren sagardoa jasoko zuten botilak prest utzi behar ziren egun handirako. Eta horrekin batera, kortxoak beretzen jarri behar ziren. Azkenik, iganderako, enkortxadora urtea pasatzen zuen txokotik atera eta erabiltzeko prest jarri behar zen.

Eta iristen zen eguna. Igandean, goiz goizetik bazen mugimendua baserrian. Ohiko lanak egin behar ziren, lehenbizi. Behiak jetzi eta ama esnea banatzera joaten zen, egunero legez, Erreteriarra; esnezaleen lanak 365 lan egun baitzuten urtean. Eta behiak gobernatu behar ziren: azpiak garbitu, bazka ekarri... ukuilua gobernatu, hitz batean, eta hau ere eguneroko lana zen baserrian.

Eta gauza guztietan bezala, iristen zen unea. Sagardoa botilaratzeko lanekin hasten ginen. Aurrena, botilak lurrean jartzen ziren, zientoka, ilaratan, botilak hantxe denak, bata bestearen ondoan.

Hori egin ondoren, indarrak berri behar ziren. Gosaria egiteko garaia iritsia zen. Zain genuen kazuela handi bat bakailao tomatearekin, eta sagardoa guztientzat zen.

Eta mokadua egin ondoren, berriro lanera. Iritsia zen benetako momentua: botilaratzera!!! Eta hor esku guztiak behar ziren. Batzuek,

kupeletik zetorren mangera mehar batekin botilak sagardoz betetzen zituzten, –aitortu behar dizuet lan hau niri izugarri gustatzen zitzaidala–. Eta behin botilak beteta, gure aita zenak enkortxadorekin kortxoa jartzen zien, banan bana. Ondoren beste esku batzuek txokoan pilatuko zituzten botilak. Hura zen katea! Eta han ibiliko zen aitona Joxe ere laguntzen.

Eta bitartean andreak, ama eta izebak, sukaldean bazkaria prestatzen. Eta dena umore onean. Bazkaria beste momentu alai bat zen: betiko istorioak, goizeko gorabeherak, adar jotzeak, abestiak... Bizitzaren une gozo horietako bat, horrela dut gogoan.

Arratsaldean berriro lanari ekin behar zitzaion. Eta orduan iristen zen niri gutxien gustatzen zitzaidan lana: botilak gordetzea eta txukun pilatzea. Hori egin ondoren garbiketarako garaia zetorren, dena garbitu behar zen eta botilaratzeko tresneria guztia jaso: mangerak, enkortxadora, eta abar.



Añabitarreko enkortxadora tipoa



Sagardo botilak pilatuta

Ilunabarrean, baserriko ohiko lanetara ekin behar zitzaion, behiak jetzi eta ukuiluko lanak egin. Eta ondoren, berriro mahaira. Oraindik afari-merienda gelditzen zen, kanpoko laguntzaileak bere etxea itzuli baino lehen.

Istoria hauek kontatzen dituen askotan entzun ditut etxean esaldi hauek: "aita, ez da hainbesterako izango", "aita, exajeratzen duzu"... Beti berdin erantzuten dut: "Nik hori dena bizitutakoa naiz, eta pozik bizitzen nintzen eta gogoratzen ditut." Horrela ezagutu nuen nik Añabitarre baserrian, han bizi izan nintzen urteetan.

“Musikaste  
2011ri dagokionez”

“Entorno a  
Musikaste 2011”

Jon Baqués

### **Antzinako musikak, dantza berriak; antzinako dantzak, sorkuntza berriak musikan**

Erretereriako Euskal Musikaren Astearen, Musikasteren 39. edizioa. Oraindik ere krisialdi ekonomikoan jarraitzen dugularik, ohiko generoen alternatibak aurkezteko ahalegina egin dugu. Musikaste 2011ko hainbat kontzertutan antzinako dantzen erritmoak entzun ahal izan ditugu, eta amaierako jaialdian koreografia-sariak lortu dituzten dantzak aurkeztu ditugu. Berria eta antzinakoa, Musikasteren elementu iraunkorrak. Euskal musikan nabarmenak izan diren izenak gogoratu ditugu: Vaquedano, Lombide, Arámbarri eta Oñatibia. Belaunaldi ezberdinetako autoreen sorkuntza garaikidea bultzatu dugu, hala nola, Alberto Etxeberria edo Josu Elberdinekin hasi eta Felix Ibarondo edo Lorenzo Ondarrarekin bukatu, tarteko belaunaldiak ere ahaztu gabe: Juan José Eslava, Gabriel Erkoreka edo Javier Busto. Hiriko musikak, musika urbanoak ere izan dira Musikaste 2011n, Itxaso Trío edo Jean Marie Ecay Trío hirukoen eskutik, baita jai-giroko musikak ere, Udal Txistulari Taldeak edo Musika Kultura Elkarteko Musika Bandak interpretatuta. Igandean, gainera, Andra Mari Abesbatzak hainbat motete interpretatu zizkigun, Gerardo Rifónek organoan jo zuen Jasokundeko Andre Mariaren parroko meza nagusian eta Niessen Elkartek antolatutako Otxote Jaialdian bost otxotek parte hartu zuten.

### **Musika garaikidean Félix Ibarondoren estreinaldi garrantzitsua izan zen**

Musikasteren idearioak gaur egungo musikarekin duen konpromisoa dela-eta, musika-astearen edizio bakoitzean hainbat obra estreinatuta ohi dira. Aurten sei obra estreinatuko zirela aurreikusita zegoen baina horietako bat, Alberto Etxeberriaren “*Branas*” izenekoa ezin izan zen estreinatu, ez baitzuen presaka amaitu nahi izan; beraz, obra horren ordean autore nafar beraren beste obra elektroakustiko bat entzun ahal izan genuen. Asteleheneko kontzertuan bertan, Sigma

### **Músicas antiguas, danzas nuevas; danzas antiguas, la nueva creación en música**

Edición número 39 de la Semana Musical de Erretereria, Semana de la Música Vasca. Inmersos todavía en la crisis económica, nos esforzamos por presentar alternativas a los géneros tradicionales. En varios de los conciertos de Musikaste 2011 han podido escucharse ritmos de danzas antiguas, y el festival de clausura presentaba danzas que lograron premios de coreografía. Lo nuevo y lo antiguo, signos permanentes de Musikaste. El recuerdo de nombres destacados para la música vasca como Vaquedano, Lombide, Arámbarri y Oñatibia. El apoyo a la creación contemporánea de autores pertenecientes a generaciones diferentes, desde Alberto Etxeberria o Josu Elberdín a Félix Ibarondo o Lorenzo Ondarra, junto a las generaciones intermedias de Juan José Eslava, Gabriel Erkoreka o Javier Busto. Sin olvidar las músicas urbanas, presentes en Musikaste 2001 en los estilos de Itxaso Trío o Jean Marie Ecay Trío, o las músicas festivas interpretadas por la Banda Municipal de *Txistularis* o la Banda de la Asociación de Cultura Musical. El domingo incluía además la interpretación de diversos motetes por la Coral Andra Mari y música para órgano a cargo de Gerardo Rifón en la misa mayor de la parroquia de la Asunción así como el *Otxote jaialdia* organizado por la sociedad Niessen Elkartea, en el que participaron cinco *otxotes*.

### **La música contemporánea ofrece un importante estreno de Félix Ibarondo**

El compromiso del ideario de Musikaste con la música de nuestros días se traduce habitualmente en el estreno de varias obras en cada edición de la semana musical. Estaba previsto el estreno de seis obras, pero una de ellas, la titulada “*Branas*” de Alberto Etxeberria, no pudo estrenarse finalmente por premuras en su gestación; tuvo que ser sustituida por una obra electroacústica del mismo autor navarro. En el mismo concierto del lunes, interpretado por el conjunto de



Project lau saxofoiz osatutako taldeak Oñatiko Felix Ibarondo konpositorearen "Aikan" obra interpretatu zuen lehen aldiz. Obra hori energia handiz interpretatu zuten lau saxofoi-jotzaile bikainek eta, zalantzarik gabe, Parisen bizi den konpositorearen konposizio-katalogoan toki garrantzitsua beteko du obrak. Interpretazioa girotzeko, Miguel Galindok eszenatokia diseinatu zuen eta kontzertua unitate baten modura aurkeztu zuen.

Hilaren 16an, astelehenarekin, goizez, Andra Mari abesbatzak Topoaren geltokiaren ondoan duen egoitzan Alfonso Gómez piano-jotzaileak azken diskoa aurkeztu zuen; hain zuzen ere, Felix Ibarondoren pianorako obra guztia biltzen du disko horretan gaur egun Friburgon bizi den gazteztarrak. Prentsaurrekoan, interpreteaz gain, Sinkro diskoetxearen eta jaialdiaren produktore Alfonso García de la Torre jauna eta konpositorea bera ere izan ziren. Aurkezpen atsegín horri amaiera bikaina emateko Alfonso Gómezek "Silencios ondulados" pieza interpretatu zuen.

### **Berreskuratze musikalak Musikaste 2011n**

Ez zen lehen aldía José de Vaquedanoren izena Musikasten agertzen zena. Musikasteren hirugarren edizioan, 1975. urtean, P. José López-Calo musikologoak konpositore horren figura aurkeztu zigun; Vaquedano Garesen jaio zen 1642an eta musika-jarduera gehiena Konpostelako Done Jakue katedralean garatu zuen. 1975. urtetik hona,

cuatro saxofones Sigma Project sí pudimos escuchar por vez primera la obra "Aikan" del compositor oñatiarra Félix Ibarondo. Obra intensa interpretada con energía por los cuatro espléndidos saxofonistas, que sin duda ocupará un lugar importante en el catálogo compositivo del compositor afincado en París. La interpretación se vio ambientada por el diseño escénico de Miguel Galindo que tendía a presentar el concierto como una unidad.

La mañana del mismo día lunes 16 se presentó en los locales de la Coral Andra Mari junto a la estación del Topo el disco que ha grabado Alfonso Gómez, pianista vitoriano residente en Freiburg, con toda la obra para piano de Félix Ibarondo. Participaron en la rueda de prensa además del intérprete, Alfonso García de la Torre, productor del festival y discográfica Sinkro así como el propio compositor. Como colofón de la amena presentación Alfonso Gómez interpretó la pieza "Silencios ondulados".

### **Las recuperaciones musicales en Musikaste 2011**

No era la primera vez que aparecía en Musikaste el nombre de José de Vaquedano. En la tercera edición de Musikaste, celebrada en 1975, el musicólogo P. José López-Calo nos presentó la figura del compositor nacido en Puente la Reina en 1642 y que desarrolló la mayor parte



autore horren musika-obra ugari argitaratu dira partituretan. Baina ez dago bere obrari buruzko grabazio askorik. Musikaste 2011ren programan hamaika obra sartu direnez, hutsune hori bete dugu. Iruñeko Ganbera Abesbatza gurean izan genuen eta handik egun gutxira, Errenterian aurkeztutako programa grabatu zuten Josep Cabré jaunaren zuzendaritzapean eta sei instrumentu-jotzaileen laguntzaz; laster CD formatuan kalera-tuko da. Programa honela zegoen osatuta: hainbat motete eta gabon-kanta; horietatik sei Done Jakue apostoluari eskainita zeuden, garai barrokoaren egoera politikoa ezin hobeto adierazten zuen tonu belikoan. Programa osoa bikain interpretatu zuen abesbatzak. Kontzertuan Josep Cabré zuzendaria egotea oso adierazgarria izan zen, Euskal Herrian antzinako musikaren panoraman aldaketak gertatzen ari diren adierazgarri, hain zuzen. Iruñeko Ganbera Abesbatzako zuzendari den aldetik, antzinako musikaren baliabideetan etapa berria zabaltzen da. Peñafloreda Kaperaren behin betiko erreleboa izango ote? Denborak esango du...

Musikaste 2011n beste berreskuratze bat ere izan da: XX. mende hasierako musikari dago-kionez, Lauder Ensemble-k ganbera-programa interpretatu zuen, hari-seikote eta pianorako obrez osatuta. Programa horren bidez lehengo mendeko hogeiko hamarkadan Bilboko Trueba Antzokian zegoen seikotea gogorarazi nahi zen. Programaren erdia Jesús Arámbarri gazteak konposatutako obrez osatuta zegoen; izan ere, Arámbarri seikotearen alma mater eta pianista. Obra atseginak

de su actividad musical en la catedral de Santiago de Compostela. Desde esa fecha de 1975 han visto la luz una importante cantidad de ediciones musicales en partitura con la obra musical de este autor. Sin embargo no existen muchas grabaciones de su obra. Musikaste 2011 ha provocado con la programación de once obras reducir esta laguna. Inmediatamente después de su presentación en nuestra semana, la Coral de Cámara de Pamplona, bajo la dirección de Josep Cabré y con la colaboración de seis instrumentistas grababan el programa presentado en Errenteria, que verá la luz en formato CD. El programa, sólidamente interpretado, estaba compuesto por una mezcla de motetes y villancicos; seis de estos últimos estaban dedicados al apóstol Santiago, en tonos bélicos exponentes de la situación política de la época barroca. La presencia en el concierto de Josep Cabré revela también cambios en el panorama de la música antigua en el País Vasco. Su responsabilidad actual al frente de la Coral de Cámara de Pamplona abre una nueva etapa en los recursos de la música antigua. ¿Significará el relevo definitivo de la Capilla Peñafloreda? El tiempo lo dirá...

Otra recuperación de Musikaste 2011, esta vez de músicas de inicios del siglo XX, fue el programa de cámara interpretado por el Lauder Ensemble con obras para sexteto de cuerda con piano. Era un programa que quería recordar la existencia del sexteto del Teatro Trueba de Bilbao en la década de los años veinte del pasado siglo. La mitad del programa estaba compuesto por





dira, sakontasun handirik gabekoak, izenburuetan ongi sumatzen denez: *"Intermedio"*, *"Hojas de Album"* edo *"Bagatelas"*. Lauder Ensemble-ko kideen eskutik entzutea luxu handia izan zen. Horiekin batera, Arámbarrik berak egindako moldaketak entzun genituen: Guridi, Ravel, Lyadov edo José Francoren obren moldaketak eta azken horren *"Arrantzaliak"* obra nabarmendu behar dugu, interpretazioan bikain aritu zirelako.

### **Klabezinerako sonatak entzuteko modu dibertigarria**

*"El Carnaval del Conde: una comedia musical del siglo XVIII"* izenburuarekin eta Isabel Álvarez soprano donostiarraren zuzendaritzapean, Magios Ensemble taldeak Barrokoaren eta Neoklasikoaren garaiko forma txikietan murgilarazi gintuen modu atsegin, dibertigarri eta xaloan. Peñaforida kondeak *"El carnaval"* komedia idatzi zuen bere eta bere lagunengozagarri Azkoitia eta Bergaran igarotzen zituzten egunetarako; obra horretan oinarrituta, hainbat pertsonaiaren bidez autore eta garai ezberdinetako piezak interpretatu ziren eta ikusleei motz geratu zitzairen emanaldia. Vicent Bru i Soler klabezin-jotzaileak Juan Andrés de Lombideren sonatak interpretatu zituen eta horiekin batera, dantzak –kanarioak eta foliak–, ahaireak eta abestiak ere izan ziren. Musikaste Lombide klabezin-jotzaile eta organistari egindako omenaldia izan zen, Elgetan jaio eta

obras compuestas por un joven Jesús Arámbarri, alma máter del sexteto y pianista del mismo. Obras amables con títulos que denotan la voluntad de levedad como *"Intermedio"*, *"Hojas de Album"* o *"Bagatelas"*. Fue un lujo escucharlas en los dedos de los componentes del Lauder Ensemble. Junto a ellas escuchamos arreglos del propio Arámbarri de obras de Guridi, Ravel, Lyadov o José Franco, cuyo *"Arrantzaliak"* destacó por la brillantez en la interpretación.

### **Una divertida manera de escuchar sonatas para clave**

Con el título *"El Carnaval del Conde: una comedia musical del siglo XVIII"* el conjunto Magios Ensemble bajo la dirección de la soprano donostiarra Isabel Álvarez nos adentró de una forma galante, amena y divertida, en las formas pequeñas del período barroco y neoclásico. Con el soporte de la comedia titulada *"El carnaval"* escrita por el Conde Peñaforida para solaz propio y de sus contertulios en las veladas de Azkoitia y Bergara diversos personajes permitían la interpretación de piezas de distintos autores y ambientes en una sucesión que se le hizo corta al público. Danzas como canarios y folías, tonadas y canciones arroparon musicalmente las sonatas de Juan Andrés de Lombide que el clavecinista Vicent Bru i Soler interpretó a lo largo de la función. Era el recuerdo de Musikaste al organista y clavecinista Lombide,



Madriilen hil baitzen duela berrehun urte. Sonata dotore horiekin batera, Gerardo Rifón organistak ere jo zuen Lombideren obra bat; hain zuzen ere, "Intento" obra, Musikasteren lehenengo igandean, Jasokundeko Andre Mariaren parrokiako organoan.

### **Iruñeko Orfeoiaren azken bisita, 1979. urtean**

Hogeita hamabi urte igaro dira Iruñeko Orfeoia Musikasten izan zen azken alditik. Orduan José Antonio Huarte zen zuzendari. Aurten, Orfeoi berritua etorri zaigu Erreteriarra; beste lau batutaren zuzendaritzapean aritu ondoren, 2005. urteaz geroztik Igor Ijorra da zuzendari. Zuzendari hori Musikenetik igarotako ikaslea da; zentro horretan polemikak izan dira berriki baina, zorionez, badi-rudi laster konponduko direla arazoak. Abesbatzen egunari amaiera emateko, Lorenzo Ondarra konpositore nafarraren bi obra erlijioso eskaini zizkiguten, koro eta metal-talderako, perkusioarekin. Emanaldi horren bitartez Musikastek konpositorea zoriondu nahi zuen, laurogei urte bete zituelako eta Andra Mari abesbatzak oso gertukotzat duelako.

Orfeoiaren aurretik, hiru talde igo ziren oholtzara. Kontzertua hasteko La Kantoria emakume gazteen koroa izan genuen, Leioako Udal Kontserbatorioarekin loturik dagoena. Leioako San Juan Bautista abesbatzaren barruan Basilio Astulezek musikaren bizitasunaren eta gaztetasunaren alde

nacido en Elgeta y fallecido en Madrid hace doscientos años. Unas sonatas galantes que unidas a la interpretación del "Intento" por el organista Gerardo Rifón en el órgano de la parroquia de la Asunción el domingo inicial de Musikaste nos daba la medida de Lombide como compositor.

### **La visita del Orfeón Pamplonés, demorada desde 1979**

Treinta y dos años separan la última presencia del Orfeón Pamplonés en los escenarios de Musikaste. En aquella ocasión vino al frente de José Antonio Huarte. Este año ha comparecido en Erreteriarra un Orfeón renovado, tras la dirección de otras cuatro batutas, ahora bajo la dirección, desde 2005, de Igor Ijorra. Un director que, no está de más recordar, ha salido de las aulas de Musikene, centro envuelto recientemente en polémicas de las que afortunadamente parece que saldrá en breve. Nos ofrecieron como colofón del día coral dos obras religiosas para coro y conjunto de metales con percusión del compositor navarro Lorenzo Ondarra. De esta manera felicitaba Musikaste a un compositor tan cercano a la Coral Andra Mari, en su ochenta aniversario.

Previamente al Orfeón subieron al escenario tres agrupaciones. Abría el concierto La Kantoria, coro juvenil femenino vinculado al Conservatorio Municipal de Leioa. Tras la apuesta realizada en el seno de la coral San Juan Bautista de Leioa por



egin du eta Koral Kantikaren jarraipen hori zubi erabakigarria da helduen koroa ziurtatzeko. David Azurzaren *"Oihu hau"* obraz gain, Javier Bustoren *"Hegan"* eta Josu Elberdinen *"Ave verum"* obrak ere interpretatu zituzten eta azken horiek jendarean entzuten ziren lehen aldia zen. Landarbaso Abesbatzak aurkeztu zituen bi obrak ere estreinaldikoak izan ziren; Landarbaso Abesbatzak hogei urte bete ditu aurten, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean. Abesbatzarentzat bereziki idatzitako bi obra entzun genituen lehen aldiz: Vytautas Miskinis-en *"Oi elurra"* eta Alberto Alcarazen *"Artzainaren kantu"*. Bi abesbatza horien tartean, Pasaia Abesbatza sendoak Tomás Garbizuren lau obra koral eskaini zizkigun, argitaratu berri den diskoaren aurkezpen modura. Isabel Mantecón izan zen zuzendari, Musikenetik sortua hori ere. Pizgarri berriak tradizio handiko abesbatzarentzat.


### **Xabier Olaskoaga plaza, Erreterria, Pasaia eta Lezoko taldeen agertoki**

Astelehenetik ostiralera bitarte, musikako eta dantzako ikasleek emanaldiak eskaini zituzten Xabier Olaskoaga plazan. Erreterria Musikaleko ikasleekin batera, Pasaia Musikaleko eta Lezoko Tomás Garbizu Musika Eskolako ikasleak ere izan genituen. Eskola lezoarrak 25 urte bete ditu aurten musika-hezkuntzan eta Musikasteko taldeak ere zorionak eman nahi dizkio, egin duen lan handiarengatik.

la juventud y vitalidad musical de Basilio Astulez, esta continuación de la Koral Kantika supone el puente decisivo para asegurar el coro adulto. Interpretaron además de la obra *"Oihu hau"* de David Azurza las obras *"Hegan"* de Javier Busto y *"Ave verum"* de Josu Elberdín, escuchadas por primera vez. También fueron estreno las dos obras presentadas por Landarbaso Abesbatza, que cumple sus maduros veinte años bajo la dirección musical de Iñaki Tolaretxipi. Expresamente escritas para ellos escuchamos por vez primera *"Oi elurra"* de Vytautas Miskinis y *"Artzainaren kantu"* de Alberto Alcaraz. Entre ambas corales un consolidado Pasaia Abesbatza nos interpretó cuatro obras corales de Tomás Garbizu, presentación del disco recién publicado. Dirigía el coro Isabel Mantecón, también surgida de las aulas de Musikene. Nueva savia para formaciones con solera.

### **La plaza Xabier Olaskoaga, escenario de los grupos de Erreterria, Pasaia y Lezo**

De lunes a viernes se sucedieron los recitales que ofrecen los alumnos de música y danza en la plaza Xabier Olaskoaga. Además de los alumnos de Erreterria Musikal nos acompañaron los alumnos de Pasaia Musikal y de Tomás Garbizu Musika Eskola de Lezo. Esta entidad cumple este año su 25 aniversario en su intensa labor de educación musical, aniversario al que se suma el equipo de Musikaste felicitándoles por la labor desarrollada.



Kontzertu didaktikoetan aurten beste konponbide bat bilatu behar izan genuen, ia 150 ikasle berri izan baitziren. Bost saio izan beharrean, sei izan ziren, Alos Quartet hari-laukotearen eskutik. 1.500 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten eta galderak egin zituzten harizko musika-tresnekin loturiko gaiei buruz.

### **Amairako jaialdia, Yon Oñatibiaren lana gogorarazteko**

Yon Oñatibiaren figura gogorazi nahi zuen Musikasteko taldeak, baina nola helarazi jendeari oiartzuar ospetsuak egindako lana? Musikaren eremuan egindako lana euskal kultura berreskuratu, eguneratu eta garatzearekin loturik egon zen, gehienbat. Eta ez gutxitan, euskal dantzak indartzearekin loturik. Amerikan izan zen eta berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetako komunikabide eta komunikatzeko modu berriak ezagutu zituen; horrek guztiak eragin handia izan zuen 1963. urtetik aurrera berriz itzuli zenean garatu zituen proposamenetan. Azkenean, dantzaren eremuko proposamen garrantzitsuenetako zenbait biltzen zituen jaialdia egitea erabaki zen. Berak asmatutako koreografiak dantza tradizionalarekin estu-estu loturik zeuden eta, kasu askotan, dantza horiek ez galtzeko erabakigarriak izan ziren. Errenteriako eta Oiartzungo txistu-taldeek eta abesbatzek parte hartu zuten Ereintza Dantza Taldearekin eta Errenteria Musikaleko



Los conciertos didácticos plantearon este año una solución diferente ante el aumento de alumnos en casi 150. En vez de cinco se ofrecieron seis sesiones, esta vez al cargo del cuarteto de cuerda Alos Quartet. Más de 1.500 escolares escucharon y preguntaron sobre diversas cuestiones relacionadas con los instrumentos de cuerda.

### **Un festival de clausura para recordar la labor de Yon Oñatibia**

El recuerdo de la figura de Yon Oñatibia planteaba al equipo de Musikaste la dificultad de cómo plasmar ante el público la labor desarrollada por la ilustre personalidad oiartzuarra. El trabajo desarrollado en el ámbito musical estuvo la mayor parte de las veces vinculado a la recuperación, actualización y desarrollo de la cultura vasca. Y en no pocas ocasiones relacionado con la revitalización de la danza vasca. Su paso por América, en especial su contacto con los nuevos medios y formas de comunicación en los años cuarenta y cincuenta, influyó claramente en las propuestas que desarrolló a partir de su regreso en 1963. Se optó finalmente por realizar un festival que recogiera algunas de las propuestas más relevantes en el ámbito de la danza. Las coreografías por él inventadas estaban tan vinculadas a la danza tradicional que lograron en ocasiones servir de puente para la conservación de las mismas. Participaron corales y conjuntos de *txistu* de Errenteria y Oiartzun



dantza-ikasleekin batera eta emanaldia Galtzarabordako kiroldegian izan zen aurtengoan. Ikusle ugari hurbildu zen Musikaste 2011ko amaierako ekitaldi berezi hori ikustera eta jende guztia oso gustura geratu zen ikusitakoarekin.

### **Balantzea**

- Euskal musikaren problematikari buruzko sei mahai-inguru
- Euskal musikarekin loturiko gaiei buruzko hirurogeita hamahiru ponentzia
- Interpretatutako obrak: garai guztietako 392 konpositorek idatzitako 2.013 obra
- Estreinaldi absolutuak: 309
- Parte hartu duten koroak: 123
- Orkestra-taldeak: 12
- Musika garaikideko taldeak: 16
- Antzinako musikako taldeak: 13
- Ganbera-taldeak: 24
- Musika-talde gazteak: 23
- Bestelakoak: 23

conjuntamente con Ereintza Dantza Taldea y los alumnos de danza de Errenteria Musikal en una jornada que se trasladó este año al polideportivo de Galtzaraborda. Un festival que dejó una agradable sensación al numeroso público que acudió a una clausura atípica de Musikaste 2011.

### **Balance**

- Seis mesas redondas sobre problemática de la música vasca
- Sesenta y tres ponencias sobre temas de música vasca
- Obras interpretadas: 2.013 escritas por 392 compositores de todos los tiempos
- Estrenos absolutos: 309
- Coros que han intervenido: 123
- Conjuntos orquestales: 12
- Conjuntos de música contemporánea: 16
- Grupos de música antigua: 13
- Grupos de cámara: 24
- Grupos de música joven: 23
- Varios: 23



### **Eta Musikaste 2012?**

Besteak beste, hona hemen Musikasteren programazioaren ildoak: musika garaikidea indartzea, konpositoreen urteurrenak gogoraztea eta interpretazioko balio berriei babesa ematea. 2012. urtean konpositoreen honako urteurren hauek ospatuko ditugu:

### **¿Y Musikaste 2012?**

Apoyo a la música contemporánea, recuerdo de los compositores en sus efemérides y apoyo a los nuevos valores en la interpretación son algunas de las líneas programáticas de Musikaste. El próximo año 2012 conmemoraremos los siguientes centenarios de compositores:

#### **Jaiotzaren II. mendeurrena / II Centenario del nacimiento**

Venancio HERRASTI ..... (Aretxabaleta, 1812-1887)

#### **Heriotzaren I. mendeurrena / I Centenario del fallecimiento**

Cleto ZAVALA ..... (Bilbo, 1847-1912)

Valentín de ARÍN ..... (Ordizia, 1854-1912)

Antonio REYNOSO ..... (Bilbo, 1869-1912)

#### **Jaiotzaren I. mendeurrena / I Centenario del nacimiento**

Serafín ARGAIZ ..... (Iruñea, 1912-1967)

Alexander LESBORDES ..... (Baigts de Béarn, 1912-1969)

M<sup>a</sup> Victoria FIGUERIDO ..... (Irun, 1912-1972)

Francisco ARRARÁS ..... (Iruñea, 1912-1978)

José de AZPIAZU ..... (Oñati, 1912-1986)

Primitivo AZPIAZU ..... (Zumarraga, 1912-1990)

José GAINZA ..... (Gernika, 1912-1992)

José León URRETA ..... (Donostia, 1912-1998)

Francisco ESCUDERO ..... (Donostia, 1912-2002)

Alexander Lesbordes oso ezaguna da abesbatzen eremuan. Venancio Herrasti XIX. mendeko organista ezaguna izan zen. José de Azpiazu gitarra-musikaren berritzaile garrantzitsua izan zen. José León Urreta musika-kritikaria izan zen Donostian. Cleto Zavala Bilboko Koral Elkartearen lehen zuzendaria izan zen. Denen gainera Francisco Escudero nabarmendu behar dugu konpositore moduan; 2012. urterako dagoeneko prestatzen ari garen Musikasteren 40. edizioan zalantzarik gabe arreta berezia eskainiko diogu konpositore horri. Programazioaren aurrerapenak gure webgunean ikusi ahal izango dituzue:

<http://www.musikaste.com/>

Alexander Lesbordes es bien conocido en el ámbito coral. Venancio Herrasti fue un reputado organista del siglo XIX. José de Azpiazu fue un importante renovador de la música para guitarra. José León Urreta fue crítico musical en Donostia. Cleto Zavala fue el primer director de la Sociedad Coral de Bilbao. Destaca sobre ellos como compositor Francisco Escudero, al que sin duda prestará atención la edición nº 40 de Musikaste que ya está en marcha con vistas al próximo año 2012. Podrán ir viendo los sucesivos avances de programación en:

<http://www.musikaste.com/>



# Herrien Astea 2010.

## Elkarrekin....duintasuna



Mikelazulo Kultur Elkartea

**H**errien Astea ekimenari hasiera eman genionetik, bestea ezagutzea, harremanak estutzea, elkar laguntzea, injustiziak salatzea izan dira egin diren ekintza anitzen haria. Bide honetan aurkitu dugu "besteak" ez daudela urrun, geure artean baizik, eta ohartu gara guk ere baditugula geure beldurrak, geure erosotasun faltsuak, geure inkoherentziak. Ohartu gara bizi garen "munduak" geure begirada definitu nahi duela. Eta gauden egoeran, Santiago Alba Ricok esaten digun bezala, "pertzepzioaren nihilismoa" pozoin larri eta arriskutsuenetako bat da. Boteretsuen exigentzietatik askatuz begiratzen ikastea da gure nahia. Aurten "Elkarrekin....duintasuna" eraikitzeke gogoia izango da Herrien Astearen lema.

Krisiak 2007-2008an eztanda egin zuenetik (elikaduraren eta gosearen krisia; krisi finantziario-produktiboa eta langabeziaren hazkunde azkarra; krisi ekologiko-klimatikoak –shunami, katrina, BP, Hungaria–, bi erantzun mota joan dira garatzen Europako lurraldeetan: elkartasunaren erantzuna eta erreakzio intsolidario eta xenofoboa.

Alde batetik, Europako "Lotsaren direktibak" xenofobiaren ildoaren oinarria ezarri zuen, Europa gotorlekua bihurtuz, itsasoetan kontrol-patruilak ugarituz, mugetan Melillako burni-hesi modukoak jarritz, eta barruan kontrol poliziala areagotuz eta etorkinentzako kontzentrazio-eremuak eraikiz. "Estranjeria" legeak onartzen dira paperik gabekoen aldeko solidaritatea gogor zigortuz; ezagutu ditugu Berlusconiaren eta Sarkozyren gobernuak agindutako ijitoen eta rumanoen espultsioak. Gobernuak harroturiko giroaren babesean eraso arrazista latzak ( Italiako hegoaldean, Iruinan, Austrian, Holandan...) antolatu dira eta elektoralki ere hazi egin dira talde arrazista agerikoak.

Baina aldi berean gorputz hartzen hasiak dira elkartasunaren, duintasunaren, zapalduen



borroka-batasunaren indarrak. Estatu espainolean eginiko azken Greba Orokorrean etorkinen elkarrekin agiri bat sinatu zuten grebaren alde eta krisiaren aurka, Nafarroan lau senegaldarren aurkako erasoaren ostean etorkinak buruan zirelarik manifestazio bat burutu zen Iruinan, Sarkozyren legeen aurkako mobilizazio erraldoiak izan dira Frantzia, Italiako hegoaldean mafia-arrazistaren eraso bortitzen aurkako etorkinen matxinada izan da....

Eduardo Galeanok "Patas arriba: la escuela del mundo al revés" liburuan esaten zigun "miseriazko itsasoan altxatzen dira pribilegiozko uharreak". Bi helburu kontrajarri dira, elkarren aurkako bi pentsamendu: edo pribilegiatuen artean egokitzen saiatzen gara, edo baztertu guztien artean duintasuna eraikitzen dugu.

Eta hiru auzi nagusi ditugu geure pentsamendu propio eta kritikoa eskatzen digutenak: lanarena, segurtasunarena, eta nortasun pertsonal eta kolektiboaren garapenarena. Eta galdetzen



dugu: Nork eta zergatik sorrarazten ditu langabezia tasa larri hauek? Nork eta zergatik erabakitzen ditu austeritate planak herri xumearentzat, edota ezerezen ditu langilek lorturiko eskubideak? Nork eta nola sorrarazten ditu lan eta bizitza-prekarietatea eta ziurgabetasuna? Nork eta zergatik erabakitzen du kontrol poliziala areagotzea? Nola ematen da eta nork du milaka hizkuntzen desagerepenaren ardura? Nork sustatzen du uniformismo kulturala, nork indartzen du norbanako kontsumista, insolidario, angustiaz jana eta etsitua? Nork erabakitzen du kultura merkatuaren esanetara jartzea?

Gure herria kontestu honen erdian aurkitzen da eta erantzun mota desberdin horien eragina eta oihartzuna jasotzen du. Ez al dago geure esku elkarrekin geure duintasun pertsonal eta kolektiboa eraikitzea?

Gure herriak esperientzia luze bat egina du. 1850 ingurutik hasita, kapital industrialak hedatzen eta zabaltzen joan den heinean etorkinak hurbiltzen joan dira Errenteria-Oreretara. 1890eko hamarkadan eta XX. mende hasieran izan zen bigarren etorkinen aldia. Frankismoaren garaian, 1950-1965 urteetan bereziki, hazkunde izugarria ezagutu zen berriro. Mende honen lehen hamarkadan neoliberalismoaren garaiko emigrazioa eza gutzen ari gara.

“Elkarrekin.....duintasuna” eraikitzearen esperientzia seinalatuak ere baditugu. II. Errepublikaren garaian elkarrekin egin zitzaion aurre Francoren kolpe militar-faszistari. Diktaduraren garaian elkarrekin defendatu zen askatasuna eta duintasuna, hainbat greba orokor eta mobilizazioak eginez, euskalduntze ahaleginak sustatuz (ikastoletan, eskola publikoetan, euskaltegietan...). Esperientzia horien haritik, elkarrekin berriro geure egunotan geure duintasuna berreraiki ahal dugu, denontzat etorkizun asmo duinak ziurtatuz.

Mikelazulok azken hamabost urte hauetan antolatu dituen Herrien Aste guztietan norabide berean aritu gara: elkartasunezko erantzuna lantzen saiatu gara. Bide beretik goaz, eta azaldu ditugun auziei buruzko gogoeta sakonaren premia ikusten dugu. Aipatu ditugun muturreko erreakzio xenofobo eta arrazistak, beldurraren manipulazioaren eta pentsamendu-ukazioaren azpizolan elikatzen dira. Horri aurre egitea beharrezkotzat jotzen dugu. Gonbidatzen zaituztegu gure herrian, eskoletan, auzoetan, osasun zentroetan, mota guztietako elkarteetan elkarrekin duintasuna praktikatzera eta horixe bera udalari eskatzera. “Elkarrekin.....duintasuna” eraikitzea Orereta-Errenteriaren historia beste esperientzia aberasgarri batez aberastea litzateke. Benetan egin ahal eta egin behar daitekeenaren erreferentzia bihur gaitzke.



# Urdaburu en los terceros sábados del mes: Ruta del Vino y del Pescado

Iñaki Prieto

La crónica de 2010 coincidió más o menos con el comienzo de un nuevo proyecto, la Ruta del Vino y del Pescado, que es el que ocupa la casi totalidad de esta crónica de 2011.

Pero como el tiempo no se detiene para nosotros y estos recorridos por etapas no suelen coincidir con ningún calendario regular (años o cursos), en Urdaburu Mendizale Elkartea, así como en este grupo de los sábados, siempre hay nuevas ideas y proyectos ilusionantes como para que sigamos reuniéndonos al menos una vez al mes (toque el que toque) en torno a la montaña, para disfrutar juntos y conocer un poco mejor los montes, sierras, valles, pueblos y rincones interesantes que esconde la geografía de Euskal Herria.

Con ello, en esta crónica se repite un poco la historia del año pasado y coincidimos también con el inicio de un nuevo proyecto, la Vuelta al Urumea, que dimos comienzo justo antes de escribir estas líneas.

Como va siendo habitual mantenemos una altísima participación, que oscila entre 65-105 personas y es de destacar que desde 2005 llevamos fletando 2 autobuses en todas las etapas, sin excepción. No cabe duda que la clave de este éxito es el buen ambiente que reina en este grupo, que en absoluto puede considerarse algo "cerrado". Es cierto que la mayoría de la gente es habitual, pues acude a todas, casi todas, muchas, bastantes o algunas excursiones. Pero también hay un grupo de gente que por diversos motivos participa de modo más ocasional, que lo deja y vuelve según épocas. Pero como en todo grupo humano siempre se produce cierta renovación y no deja de ser grato que en muchas etapas podamos ver caras nuevas de gente que acude por primera vez.

## Ruta del Vino y del Pescado

Se trata de una antigua ruta de intercambio comercial entre la Rioja Alavesa y los puertos pesqueros de Bizkaia, que la hemos realizado en 12

etapas. Si bien esta ruta, por su propia naturaleza, tiende a "evitar" las cimas y las grandes sierras, hemos aprovechado su cercanía para hacer ciertas variantes que "enriquezcan" el recorrido, lo que nos ha permitido subir al menos una cima en cada etapa.

### → 3ª etapa. Lagran-Okina

El 19 de junio fue una etapa larga, con un tiempo frío para lo que es esta época, pero agradable para caminar. Tras un larguísimo viaje echamos a andar hacia las diez y cuarto de la mañana. Ya desde la misma salida el grupo se fraccionó en muchos grupitos que no se verían las caras en toda la etapa. La primera subida, todo entre hayedo, nos condujo al Alto del Avellano y a la cima de Jaunden. Poco después, nada más entrar a Treviño, cambió completamente el paisaje, con una vegetación más mediterránea durante la bajada a Laño, lugar donde tuvimos que esperar a un grupo que se despistó. Tras visitar las cercanas cuevas eremíticas, ya por tierras de labranza, unimos los pueblos de Albaina, Pariza y Saseta, y afrontamos la parte final de la etapa. El desfiladero del río Ayuda nos deparó una grata sorpresa, un bonito camino junto al río, donde el robledal daba paso al hayedo. En Okina, pueblo que tan sólo cuenta con unas pocas casas, el pequeño bar no dio abasto ante la inusual avalancha de gente. Menos mal que la llegada fue bastante escalonada.

### → 4ª etapa. Okina-Estibalitz

El 17 de julio tampoco pasamos precisamente calor. Esta vez toda la etapa discurrió en un agrupado pelotón hasta prácticamente el final. La breve y empinada subida inicial nos llevó a un cordal, cubierto de niebla, y lo seguimos hasta la cima de Pagogan. Entrando al hayedo descendimos al puerto de Okina, en cuya campa almorzamos. Al poco de reanudar la marcha penetramos de nuevo al bosque y bajamos por un bonito y encajonado valle. Ya en la llanada avanzamos por un sendero entre pequeños robledales hasta una



Ruta del Vino y del Pescado. 3ª etapa.  
Subida a Jaunden



Ruta del Vino y del Pescado. 4ª etapa.  
Saliendo de Okina

gran balsa. Por parcelarias y tierras de labranza llegamos al cercano pueblo de Andollu. Desde aquí coincidimos con la ruta que hicimos en el proyecto de las 7 capitales y pasamos junto a la localidad de Villafranca, tomando el sendero peatonal (cimentado) que conduce al santuario de Estibalitz. La comida habitual de fin de temporada fue en el bar Urbasa de Agurain, donde tan bien nos han tratado en otras tantas ocasiones.

#### → 5ª etapa. Estibalitz-Uribarri Ganboa

El 18 de septiembre, la avería de uno de los autobuses hizo que el viaje de ida se alargara mucho y que echáramos a andar a las once y cuarto de la mañana. Afortunadamente se trataba de una etapa corta, llana y de transición, que cubrimos con ligereza y terminamos a una hora "prudente". Agradecemos también el día fresco y nublado, pues el sol hubiera apretado a esas horas centrales del día. La excursión comenzó con una corta bajada boscosa a Oreitia y continuó por parcelarias hacia Arbulo y al embalse de Uribarri Ganboa. Caminamos un poco junto a su orilla y luego cruzamos una zona con algo de bosque hasta Arroiabé, donde almorzamos. Poco después,

afrontamos, en balcón sobre el embalse, la bonita y suave subida que nos llevaría hasta la cima de Urbina, cota modesta pero que ofrece una amplia panorámica en todas las direcciones. Tan sólo quedaba bajar al visible pueblo de Uribarri Ganboa, a orillas del embalse. Finalmente nos trasladamos a comer al ya "archiconocido" bar Urbasa de Agurain, antes de emprender el viaje de regreso a Errenteria.

#### → 6ª etapa. Uribarri Ganboa-Olaeta

El 16 de octubre disfrutamos de un agradable recorrido y un tiempo aceptable en su mayor parte, salvo la parte central donde llovió y entró la niebla, precisamente en el momento más panorámico de la etapa. Salimos del pueblo de Uribarri Ganboa con el cielo encapotado pero sin niebla, recorriendo la orilla del embalse. A continuación atravesamos un bonito hayedo de tinte otoñal durante subida al monte Albertia, en cuya cima almorzamos. En la travesía a la siguiente cima de Jarindo tuvimos un entorno no tan bonito de pinares y pistas. Comenzó a llover y entró la niebla, con lo que no nos detuvimos en la cima. Tras la empinada y resbaladiza bajada paró de llover y



Ruta del Vino y del Pescado. 5ª etapa.  
Cima de Urbina



Ruta del Vino y del Pescado. 6ª etapa.  
Cima de Albertia



Ruta del Vino y del Pescado. 7ª etapa.  
Collado de Zabalaundi bajo el Ipizte

mejoró el tiempo. Tan sólo nos quedaba una parte llana entre grandes campas y granjas hasta Olaeta. Los autobuses nos trasladaron a Otxandio donde comimos diseminados en los diferentes bares de la localidad.

#### → 7ª etapa. Olaeta-Durango

El 20 de noviembre tuvimos mucha suerte con el tiempo, pues la "ventana de buen tiempo" duró lo que duró la excursión (y la posterior estancia en Durango), mientras que los viajes de ida y vuelta discurrieron bajo auténticos chaparrones. Sin duda fue la etapa más bella de este proyecto, debido al sensacional entorno por el que discurre, resultando muy variada y completa.

Salimos de Olaeta con el cielo despejado. Un precioso hayedo rocoso protagonizó la subida a la ermita de Santa Cruz y a la cima de Orisol. Por otro precioso bosque descendimos al collado de Leziaga, situado en una deliciosa campá con grandes vistas, donde hicimos el almuerzo, con unas vistas impresionantes hacia las peñas de Ipizte. Bordeando este monte cruzamos el collado de Zabalaundi, entrando a Bizkaia bajo la gran mole de Anboto. Toda la bajada disfrutamos de

sensacionales vistas al pie de Anboto y sus hermanos pequeños: Alluitz y Astxiki, si bien la bajada por el barranco de Atxarte la encontramos muy embarrada y hubo resbalones sin grandes consecuencias. Desde la ermita de Santo Cristo de Atxarte ascendimos a los caseríos de Mendiola, bajo la ladera de Untzillaitz, pasando por el antiguo molino de viento de Larrigain. Finalmente continuamos por un pequeño cordal hasta Durango, donde de nuevo nos repartimos en los diferentes bares para comer.

#### → 8ª etapa. Durango-Munitibar

El 18 de diciembre tuvimos buen tiempo y un día frío. No se trataba precisamente de una "gran" etapa, con una tónica de pinares y pistas forestales, pero la nieve de los montes de alrededor supuso una bonita estampa, aunque lo que es pisar, sólo pisamos algo de nieve en la zona más alta.

Salimos de Durango recorriendo un largo tramo de carretera, con bonitas vistas hacia las peñas del Duranguesado, para luego subir a la cima de Gallanda. Tras bordear un par de cotas pisamos algo de nieve durante la subida a



Ruta del Vino y del Pescado. 8ª etapa.  
Hacia el Gallanda con vistas al Anboto





Ruta del Vino y del Pescado. 9ª etapa.  
Cima de Arrola



Jandolamendi, cima que adquirió un encanto que de otro modo no tendría. En su collado hicimos el almuerzo, sin permanecer demasiado tiempo, pues pese al sol radiante la temperatura era muy baja. Después vino un largo flanqueo bajo el monte Oiz hasta el collado de Askakurutze, desde donde bajamos a Munitibar, celebrando la tradicional txistorrada del mes de diciembre. Hubo un grupo que se despistó en el cruce de Askakurutze y que por ello tuvieron una larga "propina" de asfalto. Les guardamos sus trozos de txistorra, que para no quedarse como sorbetes tuvieron que ser recalentados.

#### → 9ª etapa. Munitibar-Gernika

El 15 de enero nos reunimos nada más y nada menos que 105 personas. Parece que con el nuevo año (y los recientes excesos navideños) cobran fuerza las buenas intenciones. Y si a esto le añadimos una buena previsión meteorológica durante toda la semana, nos encontramos con los 2 autobuses prácticamente llenos.

El día comenzó frío en Munitibar, pero el sol empezó pronto a calentar. La fuerte subida entre cortafuegos nos llevó hasta la cima de Kanpona,

donde nos reagrupamos. Recorrimos luego el cordal hasta su última cima de Arrola, donde almorzamos, con una temperatura agradable y las mejores panorámicas del día. Durante la bajada atravesamos el bosque pintado de Oma y posteriormente recorrimos el bucólico valle del mismo nombre, al que el excesivo ensanchamiento de su carreterita (para meterle una acera/bidegorri) le ha quitado gran parte de su encanto. Tras el largo tramo de asfalto, nos asomamos a las marismas de Urdaibai, entre campos y caseríos. Cuando sólo restaba coger la bonita senda de su orilla (el GR 98) nos llevamos una desagradable sorpresa. Debido a las diferentes actuaciones humanas la única senda de acceso estaba inundada y si esto fuera poco, había trabas (humanas) que impedían aun más el paso. Eso nos obligó a tener que salir a la carretera y "chupar" todavía más asfalto, aunque algunos muy al final nos desviamos a la orilla, llegando por ella a Gernika.

#### → 10ª etapa. Gernika-Bermeo

El 19 de febrero tuvimos también una altísima afluencia, pero esta vez desafiando el mal pronóstico meteorológico. Y es que los indecisos tenían poderosas razones para acudir contra viento y marea a esta



Ruta del Vino y del Pescado. 10ª etapa.  
Subida a Katillotxu

cita: un perfil muy suave y sobre todo la comida “fin de proyecto” (aunque realmente no fuera el final, sino un “punto y seguido”).

Salimos de Gernika con la “agradable” compañía de la lluvia, que se mantuvo en la primera mitad, aunque sin llegar a deslucir completamente la jornada. Por la orilla de la marisma llegamos a la estación de Murueta, con un tramo previo terriblemente embarrado. Entre campas, carreteritas y casas pasamos por el pueblo de Altamira y cerca de Busturi-Axpe, llegando después a Sukarrieta, donde nos cobijamos bajo el puente de la isla Txatxarramendi para almorzar. Ya sin lluvia, reanudamos la marcha ascendiendo a la cima de Katillotxu. Durante la bajada, al paso por el barrio de Demiku, la mayoría del grupo se saltó el cruce que evitaba el tedioso asfalto, aunque no tuvo consecuencias, pues su ruta era igual de válida para descender a Bermeo. Los autobuses nos trasladaron al alto de Sollube, en cuyo restaurante dimos buena cuenta de una formidable comida, celebrando así el final del trayecto “oficial” de la Ruta del Vino y del Pescado. Aún y todo no se trataba del final de este proyecto, pues teníamos previsto un añadido complementario de 2 etapas: la variante desde Durango a Lekeitio.

#### → 11ª etapa. Durango-Bolibar

El 19 de marzo fue una etapa agradable pero exigente, con un desnivel de 900 metros seguidos que hace mucho tiempo que no nos tocaba y que a mucha gente se le atragantó, sobre todo debido al fuerte repecho final. No es algo inusual en nuestras excursiones (muchas veces lo hacemos, generalmente repartido en varias subidas), pero como este proyecto discurría al margen de los grandes macizos montañosos, muchos se habían “acomodado” a recorridos relativamente suaves. En siguientes proyectos otro gallo cantará.

El tiempo se portó en la primera mitad de la etapa, durante la subida. Iniciamos la etapa junto a la iglesia de Iurreta, subiendo al bonito pueblo de Garai. Tras bajar a la regata, comenzó la dura subida al monte Oiz, primeramente por una empinada pista y luego directamente por la empinada ladera. En la cima de Oiz hicimos el almuerzo, para bajar luego por su cresta oeste y flanquear por su cara norte, por un hermoso camino hasta la granja Kortaun. En este tramo ya había entrado la niebla. Casi al final de la bajada visitamos la importante colegiata de Zenarruza, llegando por la bien conservada calzada a Bolibar, donde ya comenzó a llover.



Ruta del Vino y del Pescado. 11ª etapa.  
Cima de Oiz

### → 12ª etapa. Durango-Bolibar

Y el 16 de abril, concluimos este proyecto, con una preciosa aunque larga etapa, que seguramente quedará en el recuerdo durante mucho tiempo. No cabe duda que coincidieron un recorrido inesperadamente bello (más aun con lo que es esta zona de Bizkaia) y un tiempo tan sensacional que todos los lugares tenían su encanto, lo que hizo que el excesivo asfalto de la segunda mitad fuera más llevadero.

Salimos de Bolibar subiendo por un viejo camino al barrio de Zeinka, continuando de aquí hasta el alto de Malats. Una empinada pista cementada nos llevó al collado de Santa Eufemia, desde donde atacamos la primera cima del día, el Urregarai, coronada por la ermita Santa Eufemia y con unas vistas sensacionales. Mientras tanto, como había que retornar al mismo collado, el grupo que prefería evitar esta subida enfiló directamente por el senderito entre roca hacia la 2ª cima del día, Bedartzandi. Pero tuvieron la mala suerte de desviarse de la senda y llegaron a la cresta en un entorno kárstico y sucio. Les llevó su tiempo

(y algún que otro arañazo) recorrer la cresta y recuperar el sendero a la cima, donde todos nos reagrupamos y almorzamos. Durante la bajada cruzamos un precioso bosque de encinas. La segunda parte de la etapa era un largo cordal, que discurría entre caseríos y pistas cementadas. En el pueblo de Amoroto nos refrescamos en la fuente y nos reagrupamos para bajar por un viejo camino a Ugaran. Y desde aquí continuamos por el bidegorri de la orilla del río Lea hasta las cercanías de Lekeitio. Y si la etapa ya era larga tuvimos una desagradable "propina" final, pues aunque los autobuses estaban "bien" aparcados, en un parking vacío en las afueras de Lekeitio, la guardia municipal les obligó a desplazarse a otro parking periférico en el otro extremo (era nuevo y qué mejor que obligar a utilizarlo para justificar el gasto). Y lo peor de todo fue que, pudiendo recorrer Lekeitio por su interior, los conductores nos recomendaron ir por la nueva variante (entendimos que estaban cerca y era necesario ir por ahí) y como los autobuses no aparecían terminamos recorriéndolo en su totalidad, bajo un sol de justicia.



Ruta del Vino y del Pescado. 12ª etapa.  
Subida inicial desde Bolibar

## Vuelta al Urumea

Con este nuevo proyecto, dejamos las travesías que unen lugares lejanos y retomamos las vueltas a pequeñas cuencas o divisorias, lo que en la práctica significa caminar siempre por cordales y cimas, sin zonas de "transición". En este caso se trata de un río muy cercano, el Urumea.

### → 1ª etapa. Donostia-Xoxoka

El 21 de mayo, como es lógico, comenzamos en la mismísima desembocadura del Urumea, en el puente de Zurriola de Donostia. Obviamente, al tratarse de un entorno tan urbano y tan urbanizado, tuvimos muchísimo asfalto, aunque los pocos tramos "por monte" resultaron agradables y sumamente "montañeros". Fue también un día bochornoso durante la segunda mitad de la excursión.

Echamos a andar con un larguísimo tramo urbano por delante, subiendo por Aldapeta y el Palacio de Aiete hasta la rotonda de Oriamendi. Poco después ascendimos a la modesta cima de Oriamendi, bajando al cercano Galarreta. Tras otro tramo por carreteritas acometimos la subida a la ermita y cima de Santa Bárbara, que nos hizo sudar de lo lindo y donde almorzamos. El bonito sendero de bajada fue por la base de las peñas de Santa Bárbara, escuela de escalada. Otro tramo de carreteritas nos aproximó hacia la ermita de Azkorte, comienzo de la fuerte subida a Buruntza. Una rápida bajada, primeramente herbosa y luego entre pistas, nos llevó al alto de Irurain. Como esta primera etapa la hicimos sin autobús, los "puristas" completaron la etapa hasta Xoxoka, mientras que los que no tenían organizada la retirada mediante coches se retiraron hacia Urnieta a coger el tren.



Vuelta al Urumea. 1ª etapa.  
Salida en Donostia



Vuelta al Urumea. 1ª etapa.  
Cima de Buruntza

### *Próximas etapas y proyectos*

La Vuelta al Urumea nos llevará 8 etapas, que pueden parecer muchas, pero hay que recordar que, salvo excepciones, el autobús no puede acceder al cordal y ello disminuye mucho el "avance" de cada etapa, pues obliga a tener que bajar hasta el valle, donde estará el autobús, y tener que subir de nuevo al cordal la próxima etapa. Con todo ello, en general saldrán mayores desniveles de lo que hemos tenido durante los últimos 2 años.

En las próximas etapas caminaremos por mayores alturas. Recorreremos el cordal Adarra-Mandoegi-Urepel. Tras cruzar la zona de Leitzalarrea y el monte de Eguzkizko Muñoa, continuaremos por Irakurri e Iruñarri, y después, por el perímetro de Artikutza, por Loitzate Izu y Bianditz. Aquí ya

decrecen poco a poco las alturas, por Bunaniarri, Zaria y Aldura, yendo finalmente por Listorreta y Txoritokieta hasta Donostia, donde llegaremos en enero de 2012.

Y cuando se publique el Oarso de 2012, estaremos inmersos en la Divisoria de Aguas de Euskal Herria, la línea que divide las cuencas del Cantábrico y Mediterráneo. Pero no va a ser este el siguiente proyecto, pues habría que comenzararlo en pleno invierno y las primeras etapas discurren por zonas normalmente nevadas que conviene hacerlas en época estival. Por ello intercalaremos un breve proyecto de unas 4 etapas, que ahora mismo está en proceso de estudio y que podría ser la Cañada Real que une la zona de Valdorba con la sierra de Andia.

**Fotografías:** Iñaki Prieto

# Urtearen hasiera dela eta jaietan norbait galdu dugunontzat

Xaqyar

**A**gustinek etxean sartu ahala mugimendu batzuk mekanikoki egin ditu, hara nola, guardasola komunera eraman, –bai, badaki aterkia erabiltzea hobesten dela, baina berak guardasola ikasi zuen eta horrelaxe jarraitu nahi du, bada–, jasotako korreoa eskritorio gainean utzi, ogia bere poltsa berezian sartu eta janaria poliki-poliki armarioan eta hozkailuan ipini. Bakarrik bizi den jendeak hartutako errutinari jarraitu dio. Lehenago ez zuen horrelakorik egiten. Orain badaki inor ez dela etorriko atzetik nola hala utzitako gauzak jasotzera, hauek traba egiten dutelako protesta egitera edo egindako matxurak konpontzera. Bizitzaren tartetxo batean bizi izan zen neska batekin. Aspaldian pikutara joan zen harreman hura eta geroztik bakarrik bizi da.

Kazetaritza ikasten ari zela bazeukan irakasle bat esaten zuena gaztelaniaz idatzi izan den adjetibo segidarik ederrena Machadok idatzi zuela jarri zuenean, “solo, triste, cansado, pensativo y viejo”, hau da, bakarrik, goibel, nekatuta, pentsakor eta zaharra. Bat zetorren, segidarik ederrena eta adjetikbo hurbilak... horrelaxe sentitzen baita bera arratsalde euritsu honetan.

Etsipen hau Jexuxen oroimenetik datorkio. Agustín lan egiten duen egunkaritik etorri berria da eta bertako bileran duela hogeita bost urte egindako lan bat berritzea erabaki dute. Agustín asko saiatu da erabaki hau lortzeko. Jexuxi omenalditxo egin nahi dio. Duela hogeita bost urte Agustín kazetari ezezagun eta sartu berria zen; Jexux, ordea, maisu. Orain Agustinek ardura zuzenak ditu, hara nola Sailburuaren lagun minaren iloba kazetaritzan trebatzea. Zorionez, neska apala eta langilea dela pentsatzen du Agustinek, baina gauzak erabat aldatu dira: Orain Jexux hilda dago. Urteak pasa eta halere, bere oroimena hor dago. Oraindik sentitzen ditu Agustinek zigarro usaina eta betiko eztul motel hura, Jexuxen diskurtsoa askotan mozten zuena. Jexuxen lan egiteko modua guztiz anarkikoa zen. Ordu txikitik, garagardoak edaten ari zirela, bururatzen zitzaizkion gaiak

– Begira, gauza nahiko erraza da, galdera urtearen hasieraren inguruan dabil. Denok dakigu urtea urtarrilaren batean hasten dela, eta, aldi berean hori gezur hutsa da... Denok gure mugarririk afektibo propioak ditugu... Eta orduantxe urtea bukatu edo hasi egiten zaigu. Bada niri iaz urtarrilaren 9an hasi zitzaidan Sararekin liatu nintzenez, hortxe, Ondarretan... Gaixo dagoen jendeak data batzuk aukeratzen ditu mugarriztat. Eutsi eta borrokatu egiten da gaitzaren kontra data horietara iristeko. Behin iritsiz gero... laga, utzi, egiten du, *finito*, hil egiten da...! Gure aitarekin horrelaxe gertatu zen, San Juanetan hil zen... Jaien erdian... Hori bai, banda jotzen entzun eta gero... Berdin gure izeko Avelina, medikuak ez iriterteko esan omen zion. Atsoak, ezetz bada, berak San Joseri ez dakit zenbat domekatan otoitz egin behar ziola. Bizkor ibili zen negu haren bukaeran, igandero-igandero San Joseri errezatzen elur, euri edo kaxkabarra ari zuela. Beti komentatzen zigun medikua masoia izango zela eta kontuz ibili behar genuela... Tarteka apaiz abertzale bat etortzen zitzaion bisitan eta Avelinak diru kopuru bat presatua izaten zuen. Apaizak, abertzaleen gudarostea antolatzeke erabiliko zuela agintzen omen zion eta gauzak oso ongi eta oso aurreratuak zihoaztela gaineratzen zuen, amerikanoak alde genituelako. Sekulan ez dugu jakin apaiz abertzaleak zertan gastatu zuen dirua, eta gainera ez zaigu inportik ere... Izeko Avelina pozik hil zen. San Jose arratsaldea iritsi zenean gure aitari esan zion “Heldu dire Mañuel, heldu dire... Don Bernardok esan dit. Kuluxka egitera noa elizan dexente nekatu naiz eta, baina lortu dut San Joseren zazpi domeka egitea. Zer uste zuen bada mediku liberal horrek?” Handik ordubetera neskameak hilda aurkitu zuen. Hileta egin eta lurra eman genion. Ez ziren heldu, ez zegoen abertzaleen gudarostetik, amerikanoek jadanik Francorekin akordioa egina zuten. Gure aitarentzat, berriz, jaiak ziren muga, orduntxe hasten edo bukatzen zitzaion urtea eta jaien erdian hil zen... Gai hori landu behar zenuke Auxtin, orain



ikasturte berriaren atarian gaudela...  
Horrelako galdera bat "Zuri noiz  
hasten zaizu urtea?"

Buru belarri ibili zen  
Agustin bere lan mamitsua  
prestatzen, oso gogoan du  
oraindik. Zoriondu egin  
zituzten biak, maixu eta  
kazetari gaztea.

– Guk idazle izan  
behar genian... baina,  
dirurik ez! Badakik zer  
esan zioan Borgesek  
Bioy Casaresi: "Si que-  
rés ser escritor, no seas  
abogado, ni profesor, ni  
periodista, ni director de  
revistas literarias, ni edi-  
tor". Bioy Casaresek kasu  
egin zian, oso aberatsa huan.  
Baina gu hemen, Agustintxo,  
kazetaritzan, berriei iltzatuak,  
poz-pezik sarreratxo "eleante"  
bat egiten uzten digutenean... Poz-  
pezik... Atzo Sara atera huan telebistako  
albisteetan, Parisetik... berdin jarraitzen dik,  
beti bezain guapa ta... Ez diat jarraituko... Tonto  
jartzen nauk... Idatz ezak, Auxtin, idatz ezak...  
Dotore egin huan "Zuri urtea noiz hasten zaizu?"

Agustinek ez daki neska bekadunak idazle  
izan nahi ote duen. Ez da batere tuntuna eta  
Sailburua, azken hauteskunderen ondoren, ez da  
jadanik Sailburua. Agustinek imajinatzen du osaba  
laster ez dela inor izango politikako korridore  
harroetan eta iloba, aldiz, kazetari ezaguna bihurtu  
daitekeela.

Agustin sukaldeko mahaian eserita, ordena-  
gailu eramangarria piztuta, garagardo bat eskura,  
apunteak begiratzen ari da.

Berriz saiatu da gaiari heltzen. Galdera erraza  
da oso: Zuri benetan noiz hasten zaizu urtea?  
Bileraren ondoren, Sailburu-izandakoren-lagunaren-  
iloba denda eta restaurante txinoetara bidalia du  
datuen bila. Galdetutako txinoek diotenez urtea  
urtarrilaren batean hasten zaie, hemen bizi direlako  
eta urte txinatarra ospatzea ohitura, ohitura polita  
dutela, baina urtea, hemen bizi direnez, urtea, bada,  
urtarrilaren batean hasten zaiela...

Kafea hartzen ari ziren emakumeak, aldiz,  
urtea irailaren batean hasten zaiela esan omen  
diote:



Ilustración tomada  
de Arocena, Fausto.  
*El paraguas rojo.*  
Oarso, 1958.

– Orduan antolatzen dugu bizitza, irakasle  
berriak, ohitura berriak, badakizu haurren esko-  
lako etxeko-lanak, ekintza extra-eskolarrak... Gu  
ere horietara moldatzen gara eta orduantxe hasten  
zaigu urtea... Bai... horrela da...

Agustinek musika jaialdi baten zuzendaria-  
rekin hitz egin beharko du. Lehenago ere horrela  
egina zuen. Baina garai haietan Zuzendaria sartu  
berria zen, Agustinen betiko laguna, langile eta  
umila. Gero ospea hartzen joan zen heinean puz-  
ten joan zen eta aspaldiko lagunengandik alden-  
dua zen. Dena den, Agustinek, deitu aurretik,  
badaki zein izango den erantzuna:

– Hombreeee! Aspaldikoooo! Afari bat egin  
behar diagu, e? Badizkiat nik ardotxo batzuk gor-  
deak... Urtea noiz hasten zaidala? Begira, jaialdi  
matraka hau bukatzean oporrak hartzen dizkiat  
eta orduantxe... Oporren bueltan hasten zaik urte  
berria... Hurrengo edizioari begira jartzean, ale-  
gia... Zer mouz, hi...?

Ez zeukan Musika Jaialdiko zuzendariarekin  
hitz egiteko gogorik, baina Jexuxengatik egingo



zuen... Sekulan ez zen ardotxoak dastatzeko afaririk izango, esaera hutsa zen, hari ez zitzaion piperrik inporta kazetari bati gertatzen zitzaiona... Agustinek alai-alai erantzungo zion "Ea egunen batean egiten diagun, liatuta nembilek beti..." bakardadea erraietaraino hondoratzen zuen bitartean.

Harrigarria zen zenbat jende, Jexuxen aitarren moduan, hiltzen zen jaietan. Testigantza mordoa zuten orain ere ildo horretatik. Orain Agustini zegokion aspaldian Jexuxek botatakoa esatea:

– Kontuz, kontuz! Ez dugu gaia nekrologia hutsa bihurtuko. Kontxo..! Hemingway, alu hori zegok! Sanfermineko jaien atarian bere buruari tiro egin ziona... Baina guk zerbait "Eleante" egin behar diagu!

Afaltzeko ordua hurbiltzen ari da. Supermerkatuko testigantzak irakurtzen ditu: Haur bati bere urtetebetzean hasten zaio urtea, abenduaren 3an, alegia... Beste gizaseme bati duela gutxi hasi omen zitzaion urtea, kontratua luzatu ziotenean... Ateratzear zegoen emakume batek, buelta eman, eta zera erantzun dio neska kazetari gazteari "abenduaren 30ean". Irribarretsu, poltsak beso batean eta bestean alde egin du. ("ezin landu" jarri du kazetari gazteak ohar gisan)

Azken andre honen irribarre enigmatikoarekin bukatu nahiko luke artikulua. Ez du jarriko Jexux, kazetariaren maisu, bakarrik, goibel, nekatu, pentsakor eta zaharra sentitu zenik bizitzako azken boladan. Ez du jarriko ezin sendaturiko eztula minbizia zela jakin zueneko. "Ekatzu ziarro bat. Azkena... Lasai" esan zuenik. Ez du jarriko Jexux San Sebastian bezperan hil zela, sedatua, zein egunetan bizi zen jakin gabe.

Bukaera "eleante" egiten saiatuko dira, ateratzear zegoen andrearen irribarre enigmatikoa erabilita. Agustinek ametsa, amodioa, mugarririk afektiboa... ikusi nahi du irribarre hartan. Seguruenik lan konturen bat izango zuen andreak. Ez du axolarik, Jexuxek eta Agustini berak idazle izan behar zuten, Vargas Llosak zioen moduan, beste errealitatea eraiki nahi zuten.

– Varguitas, alua dek... baina idazle handia! Dena den, zer arraio dek arroxak koloreko kontu hau? Hau al da bukaera "eleantea"? –oihu egingo zion Jexuxek.

Bukaera horren antzeko joango da, Ondarreta gogoan, Vargas Llosak Nobel saria jaso ondoren.



# La mezquita Al Mohsenin se presenta...

Mikel Zabaleta

**E**n números anteriores de *Oarso* he intentado acercarme a la realidad del colectivo inmigrante en nuestro pueblo, a los “nuevos renterianos” venidos a vivir entre nosotros en estos últimos años. Son una última –por ahora– oleada posterior a anteriores grupos llegados de toda la Península a Rentería en los siglos XIX y, sobre todo, XX.

La suma de todas estas poblaciones es la que va a conformar el Rentería del mañana. Todavía no está nada claro si de la unión de todos estos colectivos surgirá uno nuevo integrando a los demás o si, como sucede ahora, se podrá decir que vivimos “juntos pero no revueltos”. El tiempo lo dirá.

De lo que suceda se podrá decir si la sociedad renteriana de mañana será una sociedad integrada o si existirá únicamente un “multiculturalismo” en el sentido de diversas culturas que viven una al lado de la otra sin mezclarse...

Tras realizar primero un análisis cuantitativo –cuántos y quiénes son– más tarde me he atrevido a trasladar algunas reflexiones sobre las consecuencias que provoca su llegada. Pienso que había llegado la hora de acercarnos a ellos de una forma más real. Nada mejor para ello que contactar con la comunidad musulmana: la mejor organizada, una de las más numerosas y, también, la más polémica de entre todas.



Foto: Ahmed Anhari

Con ese fin me acerqué a la mezquita de Iztietta, esa gran desconocida, y les di a conocer la existencia de *Oarso* y mi deseo de hacerles una entrevista para que se presentaran al pueblo y nos hablaran de ellos mismos sin necesidad de más intermediarios. He de decir que su acogida y disposición fue muy buena e inmediata siendo el resultado de las amigables charlas que hemos mantenido el artículo siguiente.

Nuestros contactos han sido Yahia Tabbou, actual presidente de la Asociación Cultural Mezquita Al Mohssenin y, sobre todo, Ahmed Anhari, su vicepresidente. Vaya a ellos mi agradecimiento en primera instancia y, también, a la sociedad Mikelazulo donde hemos quedado para charlar a propuesta de ellos mismos.

Del resultado de nuestras conversaciones ha surgido esta entrevista abierta en la que presentan su asociación al resto de Rentería, sin evitar –sino todo lo contrario– tocar temas que puedan resultar polémicos.

Ahmed es marroquí, originario de la región nororiental de Oujda, cercana a la frontera con Argelia, y es un padre de familia afincado en Rentería que acaba de pasar recientemente la frontera de los cuarenta años.

**En primer lugar, antes de entrar a presentar la Asociación, me gustaría que me hablaras un poco de ti, Ahmed. Cuéntanos un poco cómo has llegado a Rentería...**

Estoy en Euskadi desde enero del 2006 cuando vine a trabajar a Oiartzun desde Logroño. Ahí residí en primer lugar porque tenía familia, pasados diez años de estudio en Francia, adonde emigré desde Marruecos. Soy licenciado en Ciencias Políticas y Master en Derecho... Primero residí en Lezo y, actualmente, vivo en Rentería. Aunque no vivo en Iztietta en este momento sí que estuve dos años viviendo en este barrio.

**Ahora me gustaría que presentaras a vuestra asociación, contándonos cómo y cuándo surgió y las etapas que ha conocido en su desarrollo.**

La Asociación Cultural Mezquita Al Mohsenin de Rentería –que es la más poblada y principal de la provincia– está registrada como asociación cultural con fines religiosos y nació en 1999. Su origen está relacionado con la iniciativa de un grupo de inmigrantes marroquíes que

llevaban mucho tiempo afincados aquí. Eran gente de una cierta edad que habían venido aquí en los años setenta...

En estos primeros tiempos, en su actividad cotidiana se mezclaba lo religioso con lo asociativo pues era, sobre todo un lugar de encuentro de la comunidad.

Esta primera generación gestionó la asociación hasta hace unos dos años que es cuando se da un relevo en la dirección coincidiendo con los sucesos que se produjeron en el barrio. Entonces, una generación más joven pasa a formar parte de la directiva junto con algunos de los dirigentes de la generación anterior. Éstos se habían visto desbordados ya con anterioridad por el aumento de la población magrebí, cuestión que les dificultaba el trabajo. Con los nuevos tiempos la comunidad había crecido y había también nuevas actividades que llevar a cabo.

**¿Cómo se organiza la asociación? ¿Tiene socios? Háblame de ellos:**

Aunque la asistencia es libre a todos los musulmanes, la actividad se rige por un sistema de asambleas en las que los que son socios tienen derecho a voto, eligiendo una directiva integrada por ocho personas, con presidente, vicepresidente, secretario...

La gran mayoría de los socios son magrebíes: principalmente marroquíes y algunos argelinos, luego vienen los africanos (senegaleses) e incluso hay algunos pakistaníes e indios. Hay que distinguir entre los no socios, que en una gran mayoría son de fuera de Rentería y los socios que sí que viven principalmente aquí. Viene gente de una zona alrededor de Rentería que abarca desde Oiartzun a Lasarte, incluyendo a San Sebastián dentro del ámbito de influencia de la mezquita. Socios son unos sesenta-setenta y entre ellos hay algunas mujeres, unas pocas, cinco...

La orientación religiosa de la mezquita es abierta, la inmensa mayoría de los asistentes son sunníes de rito malekí (el que se da en el Magreb) pero está abierta a todas las corrientes del Islam. Incluso shiíes...

Cuentan con los servicios de un Imán que es voluntario. Esto quiere decir que no le pagan por sus servicios sino que tiene su propio trabajo del que vive. Es un argelino que vive en Rentería.

**¿Está vinculada a algún tipo de asociación que las agrupe a nivel provincial o de la comunidad autónoma?**

Existe desde finales de 2010 comienzos de 2011 un Consejo Musulmán Vasco<sup>1</sup> en el que participé como delegado desde el principio. Lo que ocurre es que nosotros estamos registrados como asociación cultural y en el Consejo solo participan sociedades religiosas. Por eso, a día de hoy no pertenecemos a él. Estamos desde hace dos meses realizando los trámites para registrarnos como asociación religiosa...

Pero, en mi opinión, tenemos nuestras propias prioridades, como son la educación y el fracaso escolar...

**¿Se podría decir que estás más interesado por la problemática social que por la religiosa de tu comunidad?**

Es que, a nivel religioso y cultural, en Euskadi tenemos más derechos reconocidos que en Francia, por ejemplo, que es donde he vivido. Así, aquí no se ha tenido que pelear para que nos den la alimentación Halal en los colegios o en Osakidetza, por ejemplo, se nos ha dado de una forma más natural. Lo mismo ha ocurrido con la construcción de mezquitas... hasta ahora...

**¿Qué tipo de actividades lleva a cabo la asociación? ¿El cambio en la Junta Directiva ha supuesto un cambio en ellas?**

Sí, antes se dedicaba principalmente a actividades religiosas y de reunión de la comunidad, en torno al rezo de los viernes y fiestas religiosas como el Ramadán o la Fiesta del Cordero...

Ahora, además de las actividades religiosas se ha empezado con otras. Por ejemplo se dan cursos de árabe a los niños, cursos a los que asisten unos 25 en este momento. También se da apoyo jurídico a la comunidad y ayudamos a hacer trámites: empadronamientos, permiso de residencia, solicitud de ayudas sociales... También hemos empezado a colaborar con el Banco de Alimentos y a hacer salidas deportivas con los niños...

Queremos también abrirnos más a otras sociedades del pueblo y tener contacto con ellas...

---

1. Concretamente, el Consejo Musulmán Vasco se formó en diciembre de 2010 en Vitoria con la reunión de 24 sociedades musulmanas de las aproximadamente 40 que existen en Euskadi. Es un órgano de carácter consultivo cuya vocación es servir de interlocutor de las comunidades musulmanas con la administración autónoma. Su delegado en Gipuzkoa es Javier Abdul Haqq Salaberria, vasco convertido al Islam.

**¿Con cuáles tenéis trato?:**

Con Mikelazulo, SOS Racismo...

**Llegados a este punto; vamos a tratar de vuestra relación con el resto de Rentería. La mezquita está situada en Iztieta y se ha visto relacionada con una serie de problemas que hubo en ese barrio hace dos años...<sup>2</sup> ¿Cuál es para ti el origen de este problema?**

La falta de comunicación en primer lugar y, luego, la crisis que afecta a los trabajadores autóctonos que se ven compitiendo por los puestos de trabajo con los extranjeros... A esto se sumó en aquel momento el que la Diputación cerró tres centros de menores dándose lugar a la inseguridad de que se habla.

**No negáis la existencia de inseguridad. ¿Por qué crees que el problema surgió en Iztieta?**

Porque estos jóvenes se juntaban allí al existir más restaurantes y comercios donde se podían encontrar que en otros sitios... no en la mezquita.

Entonces hubo un momento puntual de inseguridad, ahora no la hay, es una exageración... además hay que unir a esto el que hay alguien detrás de las movilizaciones con fines políticos...

**¿Crees que hay alguien detrás que busca sacar votos del enfrentamiento?**

Sí, hay una corriente que busca aprovecharse de estos problemas para obtener frutos políticos. No le vamos a poner nombre pero basta ver en los medios de comunicación qué partido usa estos problemas ahora en las elecciones...

**¿Crees que los vecinos que se concentran pueden tener algo de razón? ¿Hay o no un problema de inseguridad en el barrio?**

Ahora no. Lo hubo pero fue temporal. Se solucionó cuando la Diputación volvió a meter a los jóvenes en los centros...

---

2. Hace dos años, entre junio y julio de 2008, hubo una serie de protestas y manifestaciones en Iztieta promovidas por la Asociación de Vecinos contra la inseguridad que, según ellos, se vivía en el barrio. La chispa la motivó una violación en la que estuvieron implicados, al parecer, varios magrebíes. La situación derivó de tal forma que, en algún momento, se llegó a hacer creer que podría saltar a un conflicto entre comunidades.

**Pero la Asociación de Vecinos y los que les apoyan dicen que continúa...**

Están exagerando. Iztietia tiene unos niveles de inseguridad mejores o, por lo menos, iguales que el resto de Euskadi. Tienen razón los vecinos en sus reivindicaciones de mejoras urbanísticas o de equipamientos pero no deben usar la xenofobia...

**Te agradezco Ahmed, que no evites tratar este tema que puede resultaros más incómodo. Para terminar esta entrevista quisiera darte la oportunidad de que enviaras a los vecinos del barrio un mensaje que ayude a acercar posturas para solucionar este tipo de problemas:**

Sí, creemos que la gente de Iztietia y Rentería por un lado y nosotros por el otro tenemos las mismas preocupaciones. La seguridad que necesitan las personas mayores del barrio es la misma que la que necesitan mis hijos. No tienen que vernos como problema sino que debemos colaborar todos juntos... en el futuro se necesita profundizar en la tolerancia, la convivencia y la interculturalidad.



Foto: Juan Miguel Lacunza.

# El pasado 3 de marzo falleció en Errenteria, a los 89 años, Daniel Calleja Gomendio

Rafa Bandrés

Fue un gran deportista en su juventud: destacó en salto con pértiga, jugó de portero en los mejores equipos de fútbol y alardeó del hecho de haber ganado el "Campeonato de Euskal Herria de Veteranos de Tiro de Pichón", conseguido en Gudamendi, en 1988.

Éste era Daniel Calleja Gomendio, nacido en Tolosa el 24 de enero de 1922, a quien entrevistamos en febrero de 1988.

Ameno en la conversación y detallista en cada uno de los temas que abordamos, desarrolló tantas actividades que nos fue difícil poder abarcarlas todas. Las abreviaremos diciendo que cursó sus estudios primarios en Tolosa, en "Los Escolapios", hasta los 15 años. Trabajó como ajustador-tornero en "Mustad y Cía." mientras asistía a clases de artes y oficios: mecánica técnica con Tomás Yarza

y dibujo artístico con Guevara. Cuando le tocó ir a la mili, ya estaba jugando al fútbol, por lo que se hizo voluntario del Ejército del Aire para poder ser destinado a Logroño, a los talleres de aviación, y así poder jugar en el Logroñés C.F. Era del reemplazo del 43, y el voluntariado duraba tres años, pero por una "gracia" o acumulación de errores le llevaron primero a Barcelona y luego a Santander, por lo que se licenció en 1945; después, eso sí, de haber jugado al fútbol en ambos lugares. Pero eso lo explicaremos más adelante.

Tras la mili, y simultaneándolo con el fútbol, hizo un curso de delineante proyectista industrial. Una vez que abandonó el fútbol, decidió independizarse y dudó entre trabajar por cuenta propia o ajena. Se decantó por la segunda opción y en 1953 se trasladó a la villa galletera, a Rentería, a trabajar en "Paisa" como delineante proyectista. En 1972,



"Paisa" es adquirida por "Explosivos Río Tinto" instalándose en el Barrio Arragua de Oiartzun y donde Daniel ejerció de ingeniero técnico asimilado. Allí, en 1985, nos jubilamos Daniel, otros compañeros y el que esto suscribe.

Gran deportista ya desde los tiempos de estudiante en Tolosa, al vivir junto al estadio de Berazubi practicaba diariamente atletismo con el famoso José Iguaran. Se especializó en la disciplina de salto con pértiga cuando aún se saltaba con aquellas pesadas cañas de bambú. En 1940, en Madrid y representando a Guipúzcoa, llegó a participar en el Campeonato de España organizado por la sección "Educación y Descanso" de los sindicatos verticales. Quedó en quinto lugar y logró saltar 3,15 metros. Compaginaba además la práctica de otros deportes como el montañismo, el fútbol, la pelota a mano, etc.

Recién finalizada la guerra, en abril de 1939, tenía 17 años y jugaba al fútbol en Tolosa con "El Arco Iris" y "El Oca", sendos equipos juveniles. Con los equipos federados comenzó a jugar en 1940, dentro de un torneo de la mancomunidad en el que intervenían los equipos del Zaragoza, Osasuna, Alavés, Real Sociedad, Real Unión, Baracaldo y Tolosa. Durante la temporada 41-42, jugaba ya de portero en el Tolosa, en la categoría de Regional; tenía 18 años. Para la temporada siguiente (42-43), fichó por el Real Unión, un equipo que estaba en Segunda División. Cuando acaba dicha temporada, le lían para que haga la mili como voluntario solicitando "Talleres de Logroño" en aviación y así poder jugar en el Logroñés. Esto fue posible porque en las juntas directivas del Tolosa y del Real Unión pululaban "pescadores" (ojeadores) de la Real, del Valencia y del Granada que se fijaron en Daniel, sin que éste supiera nunca nada sobre ello.

Ignacio Alcorta "Txolin" sí que le dijo que la Real le iba a fichar y es entonces cuando en lugar de a Logroño se lo llevaron a la mili a Barcelona. Allí jugó con el Reus Deportivo y luego pasó al Racing de Santander. Mientras cumplía el servicio militar, jugó las temporadas 45-46 y 46-47 en estos equipos e incluso cuando se hubo licenciado, no dejó ni un partido sin jugar.

Del Racing pasó al Real Madrid. Estamos en la temporada 47-48, aquella que coincidió con la inauguración del estadio Santiago Bernabéu. Daniel jugó en este partido inaugural contra el Os Belenense, de Lisboa. Del Real Madrid pasó a jugar la temporada 48-49 a un equipo de Primera División de Portugal, O Elvas. De allí al Osasuna y, ya casado desde 1949 con la tolosarra María Jesús Azaldegui, jugaría dos temporadas más (49-50 y

50-51) para dejar definitivamente el fútbol. En el Racing de Santander jugó con Miguel Muñoz, más tarde seleccionador nacional, y en el Real Unión con el errenteriarra Joaquín Clavé. En el citado partido de inauguración del Santiago Bernabéu compartió césped con Malowny, Barínaga, Ipiña, Antonio Alsúa, Clemente, Corona, Huete, Alonso, Cabrera, Vidal, Ortiz, Pruden, Pont, etc.

Debido a su estrecha vinculación con el atletismo, se animó a fundar en 1957 el "Club Atlético Rentería" y fue quien diseñó la pista existente en la orilla del río Oiartzun, en el barrio de Gabierrota. Una vez que dejó el fútbol y el C.A.R. en manos de los jóvenes, no se resistió a practicar algún deporte y, como también era muy aficionado a la montaña, se decidió por la caza y se hizo socio de la Sociedad de Caza y Pesca "Txepetxa". En ella estuvo siete años, unas veces como tesorero y otras como presidente. Durante su etapa de presidente, compró el terreno de "la burrería" que había en la calle Orereta y se encargó de planificar el proyecto y gestionar la autorización para que fuera construida allí la sede de la asociación. En la actualidad, esta sociedad sigue allí edificada.

Ha participado en diversas competiciones de tiro de pichón y plato y ha conseguido diversos trofeos, placas conmemorativas y medallas; el más importante, el que he reseñado al principio, el título del Campeonato de Euskal Herria obtenido en Gudamendi. En 1982, en Barcelona, fue subcampeón de veteranos en "Foso Olímpico" y en septiembre de 1984, en Tarragona, subcampeón nacional de "Foso Universal". Daniel enviudó en 1975. Tenía tres hijos: Izaskun, Santi y Daniel, quienes también destacaron en otras modalidades deportivas. Izaskun ha sido una gran jugadora de balonmano en competición internacional, Santi jugó al fútbol en los equipos Lengokoak y Touring y Daniel también a balonmano, en el equipo Ereintza.

Bueno, como anécdota, decir que Daniel Calleja Gomendio se lamentaba de que siempre le tocaba jugar contra su equipo que era la Real Sociedad...

A sus hijos y demás familiares, nuestro más sincero pésame.

Daniel Calleja Gomendio, *Goian Bego*.

# Errenteriako sekretuak

Koldo Ordozgoiti

**E**rrenteriak hirigune monumental txikia du bere baitan, ikusezina eta ez ezaguna askorentzat. Hirigune historiko hori, alde zaharra, 1996. urteaz gero babestua da monumentu multzo gisa, ondare kalifikatu izaerarekin. Errenteriako hiribildua ulertzeko, bere sekretuak ezagutzeko, historiara jo behar dugu. Jakinda, une berean, historia horrek berak moldatu duela alde zaharra eta hein handian sekretu horien egilea dugula.

Gure herriko alde zaharrak Errenteriaren sorrerarekin lotzen gaitu zuzen zuzenean, hiribildu gisa 1320an sortutako hiri berri harekin. Urte horretan, Oiartzun haraneko biztanleek bailarako lau auzuneko batean hiribildua sortzeko eta hirigunea eraikitzeko baimena jaso zuten, Alfonso XI. Gaztelako erregeak emana. Hiri berria Oretetako auzunean, ibaiak eta itsasoak bat egiten zuten lehorreko muino txiki baten muturrean –garaian itsas hegian– eraiki behar zen. Hiribildu berriari Donostiako Forua –eskubideen konpilazioa– eman zitzaion.

Sorrerako agiri hartan zehazten zen Oiartzun haraneko burua izan behar zuen hiribildu hark hirigune harresitua izango zela eta itsas portuaren bitartez gauzatzen zen oletako burdinaren eta bestelako merkataritzako atea izateko sortua zela. Sorrera agirian “Oiartzun Hiriberria” –*Villanueva de Oiarso*– izena ematen bazaio ere, goiz hasi ziren hiribildu berriarentzat “Errenteria” izena erabiltzen.

Hiriaren eta udalerraren deitura hiribilduaren zereginetatik eratorria dugu, bere portuko merkataritza-jardueratik baitatorkio gureari Errenteria izena. Zehatzago esanda, zeregin horietarako erabiltzen zen eraikin batetik. Euskaraz, errenteria esaten zaio “*kanpotik zetorren, nahiz kanpora zihoan burdina, altzairua, mea, eta abar gorde, pisatu, eta abarretarako eraikitako instalazio multzoari*” eta Hiriberriko kaian zen gisa horretako eraikin batek eman zion izena Errenteriari eta horrekin geratu zen Oretetako muinoan eraiki zen “Oiartzun-Hiriberria” hura.

XIV. mendean sortu berria zen hiribildu hark lauki forma zuen, eta harresietatik kanpo, portuan

–garaiko kaltetan– zuen aipatutako errenteria eraikina, egungo Mikelazulo, Goiko kalea, Madalen Kalea eta Foru Plazaren arteko etxadiak osatutako orubean. Ez zen gurea Euskal Herriko “errenteria” bakarra, hor ditugu Gernikakoa, auzo bati izena eman diona, Ondarroakoa, edo Gipuzkoako itsas eta ibai portuetan zirenak (Hondarribia, Altzola, Donostia, Hernani, Arrazubia –Aian–). Eta gurea nolakoa izan zitekeen, tamainan eta egituran jakiteko eraikin horien lekuko nabarmena dugu Beduan, Zestoako udalerrian eta Urola ibai ertzean, oraindik orain zutik gordetzen den errenteria.



**Beduako errenteria**

<http://bertan.gipuzkoakultura.net>

Jatorrizko hirigunea muino baten gainean eraiki zen, muinoak alde batean ibaia zuen, beste aldean Gaztainoko erreka –muinoaren aurrean itsasoratzen zena– eta hirigunearen oinean itsas badia eta horren eta ibaiaren arteko padurak. Erdi Aroko hiribildu harresitu haren traza gaur egun arte iritsi zaigu. Errenteriako hiri historikoak bere Erdi Aroko morfologia nahiko garbi gorde baitu, kaleen trazatu zein lur sailen eta etxadien eraketan.



Zerka batez inguratuta, Goiko kaleak, Elizako kaleak, Erdiko kaleak eta Beheko kaleak jatorrizko nukleo harresitua osatzen dute. Hiru karrika nagusi, goikoa, erdikoa eta behekoa, eta izenak dion moduan elizara sarrera ematen zuen Eliz kalea, eta kale horien arteko kantoiak osatzen zuten ia errektangeluarra zen hirigune harresitu haren planta. Lauki forma hori gaur arte iritsi zaigu, oso aldaketa gutxirekin eta agerian da Torrekua eta elizaren artean –merkatu zahar-raren aldetik– gorde den harresiaren partean. Laukiaren beste aldea suma daiteke Torrekuatik hasi eta Morrontxotik eta Zubiaurre jauregi aurretik pasata Agirre Lehendakari plazara iristen den etxe lerroan eta kanpoko zerkaren arrastoetan, eta garbi ikusten da Beheko kalearen atzealdean, Zumardian. Laukiaren laugarren aldea galdu egin zen hiribilduaren zabaltzearekin, baina litekeena da Zumardiko Ugarritzeko atea egon zen lekutik hasi, egungo Herriko enparantzaren erditik pasata, gaur elizak hartzen duen orubean itxiko zela, egungo Mikelazulo inguruan, Torrekuatik zetorren zerkarekin itxidura eginez. Harresiaren kanpoan

zen errenteriaren eraikina, egungo Goiko kaleko 1. atariaren eta Madalen kaleko 3. atariaren –Leku Zaharra– orubeetan eraikia.

Aipatu moduan, lau kale, etxe arteko karkabak eta karrikak zeharkatzen zituzten kantoiak osatzen zuten XIV. mendean diseinatu zen hiri berri hura. Kantoia haietako bat egun arte iritsi zaigu: egungo Jautarkol plazak eta Oorereta kaleak osatzen dute. Beste kantoia, hiribilduaren beste muturrean izango zen eta gaur egun igarri daiteke haren izaera Herriko enparantzaren trazan. Hirigune zaharreko bigarren kantoia hura nabarmen aldatu zen Andra Mari Jasokundeko elizaren handitzearekin eta XV. mendean gauzatutako hiri zabalgunearekin. Biztanle kopurua gehitzearen ondorioz, Errenteriak bere hirigunea hedatu egin zuen lehenagoko paduretara, Santsoenea, Andra Mari eta Kapitanenea kaleak zabalduz. Zabaltze horrekin batera kantoia zen hura Errenteria harresituaren erdigunea bilakatu zen, hiri-bilbearen erdigunea, haren erdian Herriko enparantza eratu zelako eta bertara begira jarri zirelako garaiko bi aginte eta eraikuntza nagusiak: eliza eta udala.



**Errenteria,**  
**balizko irudia [www.ondarea-errenteria.net](http://www.ondarea-errenteria.net)**



**Errenteria XV. mendean**

**Errenteria  
XVIII. mendean**



**Errenteria  
1880**



**Errenteria  
2011**

Erdi Aroan diseinatutako lauki harresitu haren bi ate iritsi zaizkigu gaur arte. Goiko kaleko Torrekua eta Morrontxo dorretxeak gorde dira –biak aro modernoan garatuak–, hauek harresiaren zati ziren eta Nafarroako ateko sarrera kontrolatzen zuten. Horko ataria atzo –ia XX. mendean– suntsitu zuten. Bigarren atariak, Santa Klara kalean kokatua, izen bereko errebala –harresiz kanpoko auzoa– sortu zuen, sarbide hura Oiartzungo eta Lapurdiko bidera zabaltzen zen, XIX. mendean galdu zen ate hau.

Ez zaizkigu iritsi erdi aroko hiribilduak itsas eta portu aldera izango zituen atariak. Agerikoa da sarbide hori izango zela lehen Erreterria harresitu haren ate nagusia, porturako zein zamaketara eta ontzi garraiorako sarbidea izanda. Baina ez da gorde atari horren edo horien aztarnarik.

Goiko hiria, Goiko kaleak, Erdiko kaleak eta Beheko kaleak osatutako hiri zaharrarekin batera, beheko hiria, XV-XVII mendeetako zabalgunek osatzen du Erreterriako hirigune harresitua. Biztanle-kopurua handitzearen ondorioz, XV. mendean hirigunea zabaltzeari ekin zioten, Kapitanenea (iparrean), Andra Mari (erdian) eta Santsoena (hegoaldean) kaleek osatutako hirukiaren bidez. Zabalgune berria Oiartzun ibaiaren eta itsas badiaren artean lehortutako paduretan eraiki zen, egungo Foru plazaren eta Fernández de Landa plazaren aldetik zuen portua eta kaia, eta ibaiaren aldetik garatu zituzten ontziolak, errotak eta enparauak.

Erreterriako hirigunearen hedapena nahiko azkarra izan zen. Horretan lagundu zuen XVI. mendetik eta XVIIIraino, olak eta ontziolak zirela medio, herriak izan zuen garapen ekonomiko azkarrak. Burdin ekoizpenarekin eta ontzien eraikuntzarekin lotutako lanek garrantzi handia hartu zuten eta horrek ekarri zuen biztanleriaren hazkundera. Garai horietan Erreterriak XX. menderaino berreskuratuko ez zuen biztanle kopurua hartu zuen. 4500 biztanle izatera iritsi zen.

Aro Modernoan garatu zen Kapitanenea-Santsoenea zabalgunea eta hau ere harresitu egin zen. Harresi hori harrizko zerka zen eta zati gehienean etxe-ilararen atzeko aldeek osatzen eta gotortzen zuten. Bolbora asmatua zen, baina artilleria garatu gabea eta Erreterriaren kokagunea ez estrategikoaren ondorioz, bere hesia kubo eta harresi modernoekin sendotu gabe utzi zuten ondoren ere –Hondarribian, Donostian, Baionan edo Iruñean ez bezala–. Ez zen, beraz, hiri gotortu bat, 1638an Condé printzearen tropak erakutsi zuten moduan, Erreterria hartu eta arpilatu zutenean.

Lehorreko aldean ez bezala –Torrekuatik egungo Zumardiarako tartean eta Torrekuatik Mikelazulo tartean ez bezala–, itsas eta ibai aldean eta oro har paduretako zabalgunean, Santsoenea eta Kapitanenea bitarteko zabalgunean, gotorra leunagoa zen, eta hori nabarmena da gaur egun ere. Aipatzekoak dira Torrekua eta Morrontxoren tamaina eta garrantzia, dorretxe handiak biak ala biak. Orain zati batean eraberritu den Morrontxo-eneak kaserna txiki baten izaera du, eta bi dorretxe horiek dira Andra Mariaren elizaren ondoren, herriko alde zaharreko etxe handienak eta gotorrenak. Tamaina eta kokagune negatik Torrekua nabarmentzen da. Almenadun eraikina, bere bolumenak bereizten ziren herriko etxadien gainean, irudi eta argazki zaharrak erakusten duten moduan.

Aipagarria da lehorreko harresi honetan eta dorretxe hauen kanpotik zihoan bigarren murrutxo edo harresia, Morrontxoren birmoldaketa ondoren bistan geratu den kanpoko zerka, ondoko Arranbide-eneak bere baitan hartua du eta zerka horren azken aztarna begi bistan izan dugu beti, Santa Klara kaleko 2. etxearen alboko horma osatzen baitu. Beste zati bat, harresiaren zokaloari dagokiona, 2004an azaleratu zuten eraikin berria egiteko indusketetan eta errekuperatu ondoren Txintxarri Elkartearen egoitzaren sotoetan egun ikusgai da.

Kontuan izatekoa da Kapitanenea eta Santsoenea artean, ibai eta portu aldeko zabalgunek berriak bestelako defentsak ere bazituela. Hiruki moztuaren itxura hartzen duen hirigune harresitu honek –non etxeek osatzen zuten zerka– Oiartzun ibaiaren eta egungo Foru plazaraino iristen zen Erreterriako itsas kanaleko urek penintsula bilakatzen zuten. Eta zeharkako defentsen artean, aipatzekoa da egungo Zumardi aldetik eta etxe-ilararen oinetatik pasatzen den ubidea. Harresiari atxikitako ubide horrek lubaki edo pezo moduko defentsa gehitzen zion hiriari eta gainera harresiari atxikitako errotari indarra ematen zion. Ubidea, gaur egun estolda moduan lurperatua da eta ahaztua dugu nahiz bere erabilera XX. mende arte iraun zuen. Mendetan errotak mugitzeaz gain, Fabrika Handiak (Lino fabrikak) erabili zuen. Ubide hau zen Xamakoerreka eta Fabrika Handiaren baitako kanala eta bere traza Matxain-enea eta Santa Klara kaleko eraikinen bitarteko etxe artean ikusi daiteke egun. Bestalde, arestian aipatutako harresiari atxikitako errota zaharrak –eraikinak eta anteparak– egungo Zumardi txikiaren eta Fernandez Landa plaza arteko eraikuntzari esplikazioa ematen dio.

Errenteriako hirigune hesitua zabaltzearekin batera, ateak gehitu zitzaizkion eta horien marka gaur egun arte iritsi zaigu. Ugarritzeko atea, Herriko enparantza eta Zumardiaren artean kokatua, ibaira eta Ugarritzeko zubira zabaltzen zen. Madalengo atea, portura eta Madalengo errebalerara –egungo Madalena kalera– eta Donostia alde-rako bidera zabaltzen zen, eta azkenik itsasoko atea, Kapitanenea kaleko amaieran, itsas aldera, eta padurei itxidura bitartez irabazitako lur sail-etara zabaltzen zen. Atariak XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran suntsitu ziren.

Erdi Aro eta Aro Modernoko Errenteria horretan, karrika eta kantoiekin batera, karkabak, etxeen arteko atzeko tartearak, ezinbesteko elementu arkitektoniko ziren. Karkaba hitzak lubakia adierazten du eta gernua eta gorotza biltzeko zuloa, eta hain zuzen estolderiak garatu arte funtzio hori izan zuten etxe-ilaren arteko pasabide estu horiek. Gaurdaino hiru karkaba iritsi zaizkigu. Zaharrena, goiko hirian, Erdiko kalea eta Eliz kalearen etxe-ilaren artean kokatua, ez zaigu osorik iritsi, Andra Mari elizaren handitzeak Eliz kalean eragindako aldaketan ondorioz. Beste bi karkabak Aro Modernoko zabalgunean ditugu. Bietatik meharrena, Kapitanenea eta Herriko enparantzako etxearen artekoa da, oso estua da eta hormatua dago, etxe tarte horretako sarrera Kapitaneneako 4. ezkaratza ondoan ikus daiteke. Beste karkaba

zabalagoa eta urteetan bisitagarri egon da –esateko, hor zuten Andra Mari kaleko Romeral tabernak bere komuna– eta orain Udaletxearen eraikinak bere baitan hartu du; udaletxearen eraikinaren barruan geratu da, estalia baina guztiz ikusgarri. Karkaba honek ate sendo batek itxitako sarrera du Biteri-txikia kaletik.

Biteri-txikia eta kale horri atxikitako jardintxikia Errenteriako hirigune historikoa ulertzeko elementu ezinbestekoak ditugu. Hirugarrengo kantoia hau XIX. mendean sortua da, *Camino Real* edo Errege-bide berria zabaltzearen ondorioz. Urtetan “Nacional I” izenarekin ezagutu dugun errepide berri honek, saihezbide moduan, Andoainen hasi eta Donostiatik pasata, Irungo Bentatan lehengo errepidearekin bat egiten zuen. Errepide berriak Errenteria zeharkatu behar zuen, hirigune harresitura iristean, Errenteriako badia zabala izanda garaian, ingeniariak hirigunea erditik zatitzea erabaki zuten, herria kanpotik, ibai aldetik eta iparraldetik saihestu beharrean –1915an egin zen moduan–. Zatitze horretatik sortu zen “Biteri-txikia moduan ezagutzen dugun kale tarte eta honi atxikitako jardintxikia. Gauza da 1847an zabaldu zen errepideak Aro Modernoko Errenteriako zabalgunea bitan zatitu zuela hiri zaharraren hirugarren kantoia sortuz eta gaur egun ezagutzen dugun Errenteriako hirigune historikoa biribilduz.



**Errenteria  
zaharra**

